

Mauriziaren gaineke dokumentala amaituteko crowdfundinga

17. orrialdea

Ziklo-kros astegoiena Igorren

Abenduaren 10etik 11ra, edade guztietako txirrindulariak lehiatu ziran Olabarriko zirkuituan. Zapatuko Txiki Kopea, Peio Legina igorrezarrak irabazi eban eta domekako XLV. Nazinoarteko Ziklo-krosean, Antoine Ferdinande belgikarrak eta Lucia Gonzalez asturiarrak altxau ebezan urrezko kopak. **15. orrialdea**



Erakusketea Zeberion Amerikagazko loturen gainean

16. orrialdea

Dozenaka jarduera Gabonetako programetan

Ehun inguru dira Gabonetarako antolatutako ekintzak.

Urteko atzen egunak ospakizun egunak izango dira. Danok izango dogu zer ospatu eta danontzako egongo da zeregina datozen egunetan. Arratia, Ubide eta Zeberio Udal eta alkarteek hamaika ekintza antolatu dabez herrietan: jarduera kulturalak, kirola, umeentzako gabonetako parkeak... **8. eta 9. orrialdeak**



Amaia Aldai Emakume Master Cup-eko txapelkun Lau eta Erdiko Txapelketan



Amaia Aldaik Olatz Arrizabalaga 22-15 gairiditu eban abenduaren 10ean Zornotzan jokaturako finalean. Lau eta erdiko Diario Vasco Txapelketako finala be jokaturako dau, hilaren 17an, Miriam Arrillagaren kontra Tolosan. **14. orrialdea**

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Hezkuntza legearen aurreproiektuak harrera onik ez

ELA, LAB eta Steilas sindikatuen deialdiari erantzunda, zemendiaren 30ean eta abenduaren 14an Arratia eta Zeberio Udalak ikastetxeetako langilearen gehiengoak egin eban greba. Lehen egunean %69,9ko jarraipenagaz eta bigarrenetan, %64ren bueltan. **7. orrialdea**

ARANTZAZU/LEMOA

Arantzazu eta Lemoan onartu dabez 2023rako aurrekontuak

Lemoan abenduaren 7an egin zan bilkurea eta Arantzazun hilaren 13an. Lemoako Udaleko aurrekontuek %4,24ko igoerea eukiko dabe aurtengoakaz alderatuta eta Arantzazun milioi erdi kudeatuko ditu Udalak. **5. eta 6. orrialdeak**

ZEANURI

Gorbeiaiko "Eleuterioren txabolea"ri buruzko liburua aurkeztuko dau Jon Urutxurtuk

Gabonetarako prestatutako ekintzen barruan, hilaren 30ean, arrastiko 18:30ean, Eleuterio Goikoetxea eta "Eleuterioren txabola". 1922-2022 izenburuko liburua aurkeztuko dau Jon Urutxurtuk Arkotxan.

Udan, "Eleuterioren txaboleak" 100 urte beteten zituala-ta, mendurren ospakizuna antolatu eban Zeanuriko Udalak Igiriñan eta bertan, Eleuterio Goikoetxea eta bere ekimen aitzindaria gogoratu eban. Jatorrizko mendiko aterpe-ostatuaren hormetako batean plaka orogarria inauguratu eban. **11. orrialdea**

ENTZUTEA BIREN KONTUA DA

Urtarrilak 7 arte % 50 deskontua
bigarren audifonoan Moment 440, 330 audifonoetan

Olaetxe Optika Zentrua
Sabino Arana Kalea, 3. Igoerre. T. 946 57 70 03

Aural
CENTROS AUDITIVOS

K **LAN BERTIKALAK**

Gabon zoriontsuak opa deusueguz arratiaz guztioi

SOKA

T.: 946 036 069 soka@sokavertikal.com sokavertikal.com

Literatura txokoa

NIRLIIT

Inuiteraz "Antzara" esan gura dau berba horrek.

Juliana Léveillé-Trudel egileak ondo ezetuten dauan ingurua hartu dau nobela honen ardatz. Kanadiarra da egilea, eta Quebec iparraldeko Nunavut lurraldean dabil hezitzaile. Nunavut inuiten lurraldea da, eta Salluit lurralde horren iparreko puntan dagoan herrixkea. Antzarek (nirliit) egiten daben bidaia metaforea hartzean dau egileak Quebecoko neska batek urtero Nunavut iparraldeko Salluit herrixka inuiteraz egiten dauan bidaia kontetako.

Atzen bidaian zer topau dauan azaltzen deuta protagonisteak fiordoan desagertu zan lagunari, Evar; hara jaurti eban gorpua hiltzaileak eta ez eben topau.

Haregaz daukan alkarriketa intimoa da liburua. Liburu samurra da, malenkoniatsua eta bortitza; aurrean agertuten jakozan irudiak eta eszenak deskribituten deusaz. Salluiten biolentziazko giroan bizi dira inuitak, alkoholismoa, drogadikzioa eta suizidioa protagonisten bizikide dira; eta hoba ez, andrazkoen kontrako tratatu txarrak. Eszena gordinak badira be, samurrak be badira.

Narrazioaren barrenean inuit komunitatearen bizimodu latza dogu, kultura horren asimilazioa, lotsea eta inferioridade konplejua. Atzen baten, europarron mendealdeko kulturak munduan zehar erein dauana, bertakoen, indigenen, destruktzioa. Aro barriko misinolari zuriak

dirala dino protagonisteak: ez erre, ez edan, ez hartu drogarik, ez janari lasterrik, konsumidu frutu eta barazki gehiago, egin lo zortzi orduz, oheratu, egin kirola, ez bota zakarrik naturan... baina kaltea eginda dago. Liburu honek munduan egin dogun kalteaz konzienteago bihurtzen lagunduko deuta irakurleari.

Rafa Ugalde



Juliana Léveillé-Trudel

Itzultzailea: Aiora Jaka

Nirliit

Txalaparta, 2021

216 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Abenduaren 12tik 18ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33

Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Abenduaren 19tik 25era

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g

Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Abenduaren 26tik urtailaren 1era

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7

Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048

22:00etatik 09:00etara

Gutierrez. Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 /

mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net

Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus

Areatzako Notarioria 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / info@erota.eus

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik

22:15era orduro. Jaiegunean orduro

07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengo

05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo

05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunean: 07:45etik 21:45era orduro.

3911 Linea. Bilbo-Galdakao

Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik

22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan

Durangoan.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era

orduro.

Durangoetik. Lanegunetan: 07:10etik

21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik

21:30era orduro. Jaiegunean: 07:30etik

21:30era orduro.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-

Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era

orduro. Jaiegunean: 07:30etik 22:30era

orduro.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik

21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik

21:20era orduro.

Jaiegunean: 07:20tik 21:20era orduro.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-

Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunean,

Otxandio: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidea: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunean: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten

diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunean: 08:55etik 20:55era orduro.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik

21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunean ez

dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena,

eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta

jaiegunean ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00;

11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05,

14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan:

06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan:

13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunean:

08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunean:

10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunean: Ubidekoak 09:15ean urteten

dau eta Otxandioak 16:00etan. Zapatuetan:

Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik.

Jaiegunean: Ubidekoak 10:00etan urteten

dau eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunean: Ubidekoak 09:00etan urteten

dau Gasteizetik eta Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urteten

dau Gasteizetik.

Jaiegunean: Ubidekoak 16:30ean urteten dau

Gasteizetik.

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta publizitate arduraduna:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** beazpiri@begitu.eus. **Erredakzino arduraduna:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. **Banaketia:** Garbikuzi enpresea (Arantzazu, Areatza, Artea, Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Ugutz Zuluaga (Igorre) eta Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa). **Tirada:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzu eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuz.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



ZEURE BERBEA

"Antolakuntza feministaz beldurra irauli"

Honezkero badakigu zitzaden efektua zein dan: espazio publikoa ez jagokula dinoan mezu patriarkala androi haragitan xakitzea, haragitan sartu eta markatzea. Burruka feministeari esker irabazitako terrenoaz desjabetu gura gaituen horreen aurrean *"temblad cabrones!* Beldurrak gurekin jai!" oihukatu dogu jai nagusietan eta hara non agiri diran begien bistan mezu erasotzaile, misoginoak botaten gizonak; matxismoaren eta eskoi muturraren kiratsa hedatzen daben mezuak. Androk eskubidez gabetu gura gaitue, espazio publikoa eta batez be jaia, gaua kendu gura deuskue eta gure kontra indarkeria erabilteko prest dagoz. Argi dogu: "antolakuntza feministaz beldurra irauli" egiten dogu.

Barrietan entzun genduan: Urri lehenengoaren 16an hil zan, Mahasa Amini 22 urteko andre kurdua, Iranen, Teheranen, kalean zapiak ez eutsalako ule guztia estaltzen poliziak atxilotu eta komisaldegian kolpetua, torturauta erail dau. Sare sozialetan ondoren erantzunak ikusi eta entzun doguz, beloak erre edo ulea ebagiz: "Iran, emakumeak, bizitza eta askatasuna". Atxiloketek, oindino gitxiago hilketek, ez dabe inongo loturarik tradizioagaz, estadu misoginoak dira. Tradizioaren eta kulturearen izenean zenbat bider, zenbat lekutan sufridu behar dogu androk biolentzia eta menpekotasuna areagotzea. Hemen bertan doguz Hondarribia, Irun... jai parekideak

erreklamauz urteak eta urteak. Irabaziko dogu, irabazten gabiz, ez gara bildur.

A! eta bazenkian? Esklabotza goraka doa XXI. mende honetan. Mundu osoko 50 milioi persona bere gogoz kontra dabiz beharrean edo ezkontzera behartu dabez. Esklabotza modernoak gora egin dau azken bost urteotan, 10 milioi pesona gehiago, Lanaren Nazinoarteko Erakundeak (OIT) eta Migrazinoetarako Nazinoarteko Erakundeak (OIM) argitaratu daben txostenak dino. Aldatu ez diranak biktima zaurgarrienen ezaugarriak: andrak eta umeak. Eta bazenkian? Esklabotza moderno munduko ia herrialde guztietan gertatzen da. Pandemia garaiko konfinamentu-politiken ondorioz herrialdeetara sartzeako legezko bideak itxi ziranean handitu zan personen trafiko sareetan harrapatua izateko, holan prostituzinora bideratzeko eta behartutako lanetan jausteko arriskua. Persona migraduen da esklabotza moderno gehien eragiten dauan kolektiboa. Horregaitik be ahiztatasuna erreibindikatzen dogu: "bat erasotzen badute denok erasotzen gaituzte".

Ezin dogu aitatu barik itxi Arratiant bertan gertatzen diran biolentzia instituzional kasu larriak frogatuari emon badira be, ebazpen judizial bidebako baten ondorioz, ustezko erasotzailea libre gelditu zan. Orduan bertan hasi zan bildurraren infernua biktimea eta bere semearentzako, maite eben guztitik (lagunengandik, lanetik, herritik, eskolatik...) urrundutera behartuta, bizitza guztiz aldatzera bultzatuta bizilekua aldarazoz, ustezko erasotzailea edonondik lasai dabilan bitartean? Hori ez da ala andron kontrako indarkeria?

Beste ebazpen instituzionala

lehenengo eta gero judizial bidebakoen ondorioz alabak ezin dau bere amagaz bizi, alaba aitagaz bizitera derrigortuta dago, gizon hori erasotzailea dala salatu dan arren. Faltsua dan Guraso Alienazino Sindromea (GAS) leporatzen deutsie fiskalak eta epaileak andreari. Hori be ez ete da andrazkoon kontrako indarkeria matxistea? Irune zure burrukea txalogarria izateaz gain andre askorentzat erreferentea dabil izaten. Irune, Bea, zuokaz gagoz. "Nik sinesten dizut. Guk sinesten dizuegu".

Feminismoa iraina izatetik masa izaera hartu dau. Gitxi dira feminista ez dirala agerian deklaritzen dabenik. Baina feminismoak ez dau izan behar, ez da banakako askatasun handiagoa izateko bakarrik. Feminismoak helburu jakin baten inguruan antolatzea garoan ideologia iraultzailea da: androk erasorik bako bizitza libre izateko eskubidearen aldeko burrukea; andrea izatea ez daiten bihurtu bizitza gitxietsia ezta heriotzea bortitza. Andrea izateak merezi dauan bizitza izatea bihur daiten. Horregaitik dinogu "Gora borroka feminista".

Sinistarazo gura euskuen androk be sexu erasotzaile ginala. Tematu ziran andrak be umeak bortxatzen ginduzala esaten, holan euren errua ezabatzen zalakoan. Demostrau genduan gizonak zirala bortxatzaileak eta alkartuz aurre egiten hasi ginan erasoei, andreari sinistuz, bateri erasoez gero danok erantzuteko. Orduan be alkartuta esaten genduan zeu zara bortxatzailea! Botxatzaile zara zu!

Gauetan bildurtu gura gaitue, jaietan bildurtu gura gaitue ez gaitzezan libre sentidu eta guk bildur barik... Noka berba egiten dogun neska Kafrangak, Andraizea lez bazterrak astintzen dabezan andrak, Orratzak zorrozuz sareak eraikiten dihardogun andre Mazalak, Zaplast-ekoak hartutakoak garan heinean, batu, alkartu, saretu eta burrukatzen dogu eta aspaldiko sorginen antzean feminismoaren haziak ereiten doguz Ilgoran. Arratiako Mugimendu Feministaren sarea gara eta guk argi dogu: "antolakuntza feministaz beldurra irauli egiten dugu. Gora borroka feminista!!".

ARRATIAKO MUGIMENDU FEMINISTA

ERETXIA



ANE ELORDI
 ALBURQUERQUE
 Korrikaren koordinatzailea

Egin eta eginarazo

Udabarian, euskaldun eta euskaltzalez bete genduzan Donostiako kaleak. Beste behin, KORRIKak euskal komunidadean eragitea lortu eban: 11 egun eta 10 gauetz arineketan igaro genduan Euskal Herria, lekukoa eskurik esku, barruak estututa, euskeraz, euskertik eta euskerearen alde. Baina, gitxienez, bi urterako itxaropenezko uholdea izan behar ebana lanparra baino ez dau ekarri.

Urte erdi geroago, udagoienean, itxaropena berbiztu eta Euskaraldian murgildu gara. Horregaz batera Pantailaldia eta Gaztealdia be etorri dira; egun gitxi batzuetan, euskereak jente-arteko hainbat esparrutan presentzia hartu izan dau. Ahobizi eta belarriprest izan gara, eta abenduaren 2a heldu orduko txapa kentzeako ariketea egin dogu. Soinean txapak eragiten dauan zama izugarria izan daiteke batzuentzat; beste batzuk, barriz, aldekoa kenduta be, "txapa emoten" jarraitzen dogu.

Egun bat beranduago, Euskerearen Nazinoarteko Egunean, herriz herri batu ginan gure hizkuntza gitxitu exotikoaren aldarri egin eta jai giroan ospatzeko. Baina ba al dago zer ospatu? Nik neuk ez dot uste. KORRIKAN pozez eta emozinoz zeharkatu genduan Euskal Herria, Euskaraldian ahoak inozko bizien izateko ahalegina egin genduan, baina ez da nahikoa. Urteak 365 egun ditu eta horreetako bakotxa zor deusagu euskereari. Agerikoa da, askoz gehiago behar dogu. Horren erakusle dira Soziolinguistika Klusterrak egindako erabilerearen

gaineko azken kale neurketen datuak, inguruko arnasguneetan be itoten hasi gara. Pandemia bat garaitu dogula sinistu arren, beste izurrite bat jabilku eraso egiten, erdal birusa.

Baina itolarria arintzeko hainbat ekitaldi izan doguz egunotan, tartean, Durangoko Azokea, euskerearen eta euskal kulturearen oasia, gure Meka. Bost egunez euskal kulturearen erdigunea izan da, eta, bide batez, belarriak gozatzeko be balio izan deusku, barrua lasaitzeko. Batean kale, bestean bale. Ez gaitzezan bost eguneko loraldiaz ase, ezta zorioneko aurkikuntza arkeologikoez be.

Beharrezkoak doguz horreek guztiak, baina ez dira nahikoa. Eta Joseba Sarrionandiari hontsu irakurritakoagaz bat egiten dot: "oso guai dagoz Euskaraldiak erdaraldian, baina euskaldunok dana dogu egiteko". Euskaldunok, guk geuk, irauli behar dogu bizi dogun erdaraldia. Euskaldun zaharren garaia da: aparteko esfortzurik barik, ikasi barik, euskerea berez jaso dogunok eutsi behar deusagu hizkuntzeari. Errazegia litzateke hizkuntzearen geroa, bakarrik, instituzinoen esku ixtea, inoren esku ixtea. Geure konpromisoa eta ardurea da.

Zalantzarik barik, bidelagun izan behar doguz geurera hurreritzen diranak. Baina euskaltegietan ikasten dabizan horreei eskatzen deusegun beste exjdu deusagun geure buruari be. Ez daigun euskerearen biziraupena euskera ikasle eta hurrengo belaunaldien esku itxi, guztion baturak ekarriko dau oparotasuna. Gazteak izan ohi dira sarri jomuga, baina eskaini be egin behar jakie: hizkuntza bizi, gozo eta erakargarria. Eskola eta eremu formaletatik kalera jauzi egingo dauan euskerea, sare sozialak astindu eta pantailak hartuko dituana. Gure esku dago txapak kendu arren txapak aldatzea.

Beharrezkoa da hizkuntzearen ezagutzearen unibersalizazioa, eta ezagutzak ekarriko dau erabilerea. Etiketetatik harago, euskaldun zahar zein barri, hizkuntzeak berak gorputza behar dau, gu behar gaitu. Bihur daitezala belarriprestak ahobizi eta euskaradunak euskahaldun. Guztion ahalegina behar da.

Dakigunok egin eta albokoari eginarazo. "Ekin, hitzekin eta ekintzekin!".

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (XV). Kale berbakunea sustatu guran

ARIKETAK (ERANTZUNAK HURRENGO ZENBAKIAN)

- Laster _____ Gabonetako oporrak (daukaguz)
- Hainbeste eguzki eta gero etorri _____ euriak (dira)
- Durangoko azokeak 57 urte bete _____ (ditu)
- Hotz egiten jok/jona eta nora _____ (zoaz) jake barik!

NETFLIX
 EUSKARAZ

WWW.PANTAILAKTUSKARAZ.EUS

EUSKARAZKO
 IKUS-ENTZUNEZKOEN
 ALDEKO EKIMENA

Sinatu eskaerea helbide honetan:

<https://www.change.org/p/basque-governments-netflix-netflix-euskaraz-in-basque-en-euskera>

LUMATUTEN



XABIER LAMIKIZ

Prezioen putzea
eta langile
burrukea

Mundua aldatuz doala ikusteko ez dau bario hogei edo hogeta hamar urte izateak. Denpora perspektibea luzeagoa behar da iraganak guztia (ona zein txarra) irunsten dauala ulertzeko, baita gure etorkizuna be, unea helduta. Halanda be, badira aldiro iraganetik iges egin eta gurera itzultzen diran zenbait fenomeno desatsegin. Pandemiak, adibidez. Edo gerrak. Halakoak gainditu ondoren, barriro ikusiko ez doguzala espero dogu, edo gizarteak esperantza horri heltzean deutsa denpora batez, agian bizpahiru belaunaldiz, esperientzia gogaikarria bera ahaztu egiten dogun arte. Eta orduan, bat-batean, abisurik barik, hara non azaltzen jakuzan barriro gerrak eta pandemiak. Eta harigarriena da harritu egiten garala. Eta orduan mundua pikutara joaten dabilala entzuten dogu nonon,

gero edonon, eta atzenean hori bera sinisten dogu guk be. Ezkorra izateak zeozelango ospe intelektuala daukalako, eta eretxi baikorrek, aldiz, barregurea emoten deuskuelako, eroen gauzak balira lez. Itzuli barri jakun fenomeno gogaikarria gehiegizko inflazioa da, prezioen putzea. Domine, misere nobis.

Hirurogei urtetik gorakoek gogoratuko dabez Francoren garaiako zenbaki bidun inflazioa sak. Franco hil ondoren prezioak oindino gehiago igon ziran. 1978an urteko inflazioa ehuneko 28 izan zan, eta 1985era arte ez zan ehuneko 10etik jaitxi. Egungoa 6,8 da (Eustaten arabera). Ondorio larriena, soldatak igon ezean, erosteko ahalmenaren jaitsierea da, diru bardinak gitxiago eros leike eta. Eta horrek, jakina, langileen eta pensinodunen protestak bizten ditu. Badakigu pensinoak ehuneko 8,5 igongo dirala 2023an. Zer gertatuko da langileen soldatakaz? Madrilen urte asko emon ebazan politikari aberetzaile bateri entzun neutsan igaz grebak eta langile burrukea XX. mendeko gauzak zirala, modatik joanak. Batzutan baikortasunak ezjakintasuna islatzen dau. Beste batzutan maltzurkeria.

ZERTZEAN



Ogaragotiko iturriari
Asterriko jaiak 2022



Gure kulturaren, beste askotan lez, zein ederra dogun ura, naturak berak bizigarritzat jarri deuskuna eskura. Ai, horren faltak erakusten dau bazterretan negargura; behar dan legez, ez da erabiltzen ta horrek sortzen dau ardura: kontuan hartu ura dogula ondarea ta onura.

Gure auzoko iturritzoa isilik zeure txokoan, hirurogeita hamar urtean, zerbitzari luzaroan. Zeu omentzea otu jaku, gaur, Sanandres jaien giroan, ta jagoteko konpromisoa hartzean dogu gogoan; zure ur garbi bizigarriak iraun dagian geroan.

Doinuak: Mutil koskor bat

Irudia: Eñaut Aiertzaguen; bertsoak: Jose Ramon Arbe.

BEGI TXINDORRA

Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunagaz bat egiteko, inguruko herrietan lez, Igorreko Udalak indarkeriaren kontrako kartelak ipini eban. Eta inguruko herrietan lez, kartel honeetako bat erasotu dabe.

Desbardintasuna? Oingoan ezin esan gertautakoa umekeria izan danik. Ez da rotulki bategaz egindako zirriborroa, ez da paperezko kartel bat apurtutea. Gupil biri sua emotea ez da, gasolina barik, gauza erraza. Indarkeria gure artean dabil; bildur barik, baina zaindu gaitezan!





Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com



★ BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17	Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24	Goldor 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com



Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologoa

Bidebarri 1. behea
48140 Igorre-Bidakoa
T. 94 631 50 39
Iturrieta Zerbaita 101
R.P.S. 31/06

IGORRE

Sei otzara zozketatuko dauz merkatarien alkarteak

Erredakzinoa

Igorreko AME, merkatarien alkar-tearen presentzia nabarmena izango da Gabonaldian. Hilaren 9an, 20:15ean, BBK aurrean da-goan Gabonetako zugatza biztu eben eta 26an, Zirko Txosko konpainiaren *Oh-Pera* familien-tzako antzerkia ekarriko dabe Lasarte Aretora. Ikuskizunaren ostean, herriko dendetako pro-dukтуakaz osotutako otzarak zozketatuko dira. Zozketarako txartelak eskuratu daitezkez doban

AMEko dendetan erosketak egin-da, hilaren 26ra arte. Antzerki, umore eta zirkuaren arteko nahasketea da *Oh-Pera*. An-tezlan osoan zehar, zirku teknikak oso modu barritzailean azalduko dira, ikuskizunaren dramaturgia-ren barruan integrata. Aritza Ro-driguezena da zuzendaritza eta Ariñe Azkue eta Oscar Paez dira aktoreak. Ostean zozketatuko dira otzarak. Otzaretako bat, antzerkira joandakoen artean zozketatuko da eta beste bosten zozketan papele-ta guztiak sartuko dira.



AREATZA

Herrian erosteko bonu kanpaina ipini dabe martxan Areatzan

Erredakzinoa

Urtailaren 15era arte, %20 mer-keago egin daitezke erosketak Areatzan. Izan be, Areatzako Uda-lak eta Orburu Merkatarien alkar-teak Bonodenda kanpaina ipini dabe martxan eta 20 euroan ero-sitako bonuak 25 euroko balioa dauka kanpainan parte hartzean daben alkarteko zazpi komer-

tzioetan. Guztira 400 bonu dagoz eta 16 urtetik gorako persona bakoitxak hiru bonu gehienez ero-si ahal dauz udaletxean. Bonuak erosi eta gastetako epea bera da. Bonuak Areatzako komertzio honeetan erabili ahal izango dira: Gauzak-en, Andikoa harategian, Aliproxen, Mas ke Pan-en, tabako-dendan, farma-zian eta Denda Barrin.



LEMOA

Aurten baino %4,24 gehiago aurrekontuetarako Lemoan

Abenduaren 7an onartu ebazan Lemoako Udalak 2023rako aurrekontuak eta guztira, 4.756.971,77 euro kudeatzea espero da datorren urterako. Aurtengoagaz konparata, %4tik gorako igoerea suposatuten dau honek. Aurrekontuok EH Bilduren aldeko sei boto eta EAJren kontrako bost botogaz onartu ziran.

Erredakzinoa

Saioa Elejabarrieta alkateak, es-koleagaz eta nagusiakaz egigo diran lanketak azpimarratu dauz: "Lemoaren izaera komunitarioak aurrekontuetan bere isla izatea topetan dogu urtero". Eukeni Bikarregi ogasun zinegotziak ostera, udal eraikinetarako ba-rriztapenak azpimarratu ditu: "Lan sakona amaituten gabiz, eta horregaitik oin efizientzia ener-getikoari eta argiteriari begira lan egingo dogu, bai eskolan, kirolde-gian zein kalean". 2023 urteko aurrekontuetan batzean diran zeregin barri eta garrantzitsuenen artean, hainbat puntu dagoz. Batetik, Udaleko enplegarritasun aukerak hobetuteko Ekintza Plana garatuko da, aurten diagnostikoa egin ostean. Bestetik, atzen urteetan argiteria hobetuteko lanakaz segiduko da eta horrezaz gain, komunitade energetikoen zein eskola eta kirol-degiko galdaren azterketak egingo dira. Eraikin publikoakaz jarraituta,

hurrengo pausua Bake Epaitegia eta gizarte zerbitzuak dagozan eraikina barritatzea izango da. Herritarrei jagokonez, haur eta hirugarren adinekoakaz egingo dira lanketa bereziak. Batetik, eskolan patio inklusiboaren

proiektua landuko da, dagozan beharrak batu ostean patioa be-rarrantolatu eta eraldatzeko. Beste-tik, hirugarren adineko alkarte-a-gaz lankidetzan, Nagusi Lemoa programea landu eta martxan ipiniko da.



LEMOA

Hilaren 21era arte egindako erosketen artean, 25 euroko 16 bonu zozketatuko ditu Lemoako merkatarien alkarteak

Erredakzinoa

Lemoa Ureztatzenek, Lemoako merkataritza, ostalaritza eta zer-bitzu enpresen alkarteak, Gabo-netako erosketak herrian egiteko animetako, 25 euroko 16 bonu zozketatuko ditu. Zozketan parte hartzeako, erosketaren txartela bezeroae-ren telefono zenbakiagaz, ko-mertzioaren bertan egongo dan ureztaontzian sartu behar da. Ko-mertzio bakoitxak 25 euroko bonu bi zozketatuko ditu hilaren 21ean. Bonuak komertzio horretan gas-tau daitezke urtailaren 31ra arte. Bonua irabazi ez daben txarte-len artean, 360 euroko balioan dauan opariz betetako orga bat zozketatuko da.



ARRATIA/UBIDE

Gehiago gara eta ez hain zaharrak

Atzen 20 urteotan, 2001etik 2021era, %14,3 hazi da Arratiako biztanleria, 12.023 lagunetik 14.132 biztanlera pasauz. Eskualdeko hazkundera, Hego Euskal Herrikoa (%8,3) baino sei puntu handiagoa izan da.

Erredakzinoa

Herri guztiak hazi dira Ubide izan ezik. Biztanle kopuruari jagokonean, gehien hazi dana Lemoa da, 2021ean, 2001ean baino 839 lagun gehiago bizi ziran eta 2.692 biztanletik 3.531era pasau ziran, %31ko hazkunderagaz. Ehunekoetan baina, gehien hazi dana Arantzazu izan da %43ko hazkundera izan dau-eta; 2001ean, 291 lagun bizi ziran Arantzazun eta hogeit urte beranduago 417.

Arantzazu eta Lemoaz gainera, ehunekotan, Hego Euskal Herriko batez besteko hazkundera baino handiagoa izan dabe Dimak (%30), Areatzak (%20), Arteak (%17), Bediak (%10) eta Igorrek (%10). Zeanuri barriz, %1 hazi da eta Ubiden, oin dala 20 urte baino biztanle bat gitxiago dago egun.

Joerea denpora guztian gorakoa izan bada be, hazkunderik handiena, 2007 eta 2013 bitartean gertatu zan.

Ez gara hainbeste zahartu

Hego Euskal Herrian, azken urteotan gizartea nabarmen zahartu da, eta 60 urtetik gorako persona gehiago dagoz oin. Holan, 2001ean edade horretako jenteak gizartearen %24,06 osotuten eban bitartean, 2021ean %30,23 izatera pasau zan. Eskualdeko datuei begiratuta barriz, 2001ean biztanleen %27,3 zan 60 urtetik gorakoa, Hego Euskal Herrian baino hiru puntu gehiago, eta

2021ean, %28,1. Beraz, hogeit urte honeetan, Arratian edadeko jentearen pisua ehunekoetan hazi egin dan arren (%0,8), oin, Hego Euskal Herriko gizartea zaharragoa da Arratiakoa baino.

Ehunekoetan, gazteen taldea, 20 urte baino gitxiagokoek osotuten dabena da gehien hazi dan taldea, %15,9tik %19,3ra pasauz. Hogeit eta berrogeta hamar urte arteko taldeak barriz, apur bat behera egin dau ehunekoetan, nahiz eta lagun gehiago izan. Izan be, 2001ean, Arratian, 20 eta 59 urte bitarteko 6.824 lagun bizi ziran, gizartearen %56,7, eta 2021ean, 7.433 biztanle, %52,6.

Jaiotzak eta heriotzak

Gorabehera handiak euki dabez jaiotzak gurean. 2021ean, 103 ume jaio ziran, 2001ean baino gitxiago (108), biztanleria handiagoa izan arren. Ha-ta guzti be,

2010 eta 2013ren artean, boom txiki bat egon zan: 2010ean, 175 ume jaio ziran; 2011n, 177; 2012an, 169 eta 2013an, 164. Biztanleria, 13.700etik eta 13.933ra igon zan.

Heriotzei jagokienean, 2001ean, 119 izan ziran. Heriotz zenbakirik altuenak, 2020 eta 2021ean izan ziran, 158 eta 157, hurrengoz hurrengo, baina 2003an eta 2005 be zenbaki altuak dagoz; 153 eta 146 hain zuzen be, eta orduko populazioagaz alderatuta atzen urte bitakoak baino txarragoak dira.

Hogeit urte honeetako demografiako bilakaeran, personen mobimentuek be eragin handia izan dabe eta duda barik azalduko dabe zergaitik, oin dala 20 urte Hego Euskal Herria batez beste baino gizarte zaharrago batetik, batez bestekoa baino gazteagoa izatera pasau dan Arratia.



IGORRE

Gure Eskuren kantu poteoa

Erredakzinoa

Hamar urte joan dira Gure Esku sortu zanetik. Urte honeetan guztietan Erabakitze Eskubidearen alde hainbat ekimen burutu dabez. "Batzuetan mareagorak eroan gaitu urrunera eta beste batzuetan barriz erresakeak ekinbidea gatx ipini deusku. Halanda be, urte luzeetan gatazkagai izan dana, erronka demokratiko bilakatzeko, Erabakitze Eskubidea giltzea dala aldarrikatu dogu" di-noe Arratiako Gure Eskukoek.

"Gaurkoak agian, ez dira garai onenak, baina gure herriak Erabakitze Eskubidea dauka eta ahalginak egiten segidu behar dogu helburua lortzeako. Uzta oparoak, erein egin behar dira alde zurreretik" gehitu dabe. Eta ereiten jarraitzeko Arratia mailan, Igorren, datorren abenduaren 29an, Erabakitze Eskubidearen aldeko kantu poteoa egitea proposatzen dabe. Arrastiko 19:00etan Gau Lora tabernan hasita, hamar urte honeetan Gure Eskuk atera dauan edozein kamiseta jantzi-

ta, kantua eta aldarrikapena lotu gura dabez. "Kantatzen dauan herria bizi da!".



ARTEA

Pandemia garaiko gizartea
berbagai Artean

Erredakzinoa

Arteako Herriko Bentak, *Pandemia garaiko gizartea mintzagai, COVID 19 kasua* berbaldia antolatu dau abenduaren 17rako. Arrastiko 18:00etatik aurrera Adrian Zelaia eta Ion Andoni del Amo egongo dira plazako bentan, "ziurbakotasunei iskin egitea ariketa kolektiboa izan behar dala sinistuta" eta "hausnarketari ekiteko", eztabaidea gidatzen.

Adrian Zelaia, EHuko Ekonomia Aplikatuko irakaslea da, Ekai Center ikerketa zentroko presidentea eta

Ekonomia eta Politika Publikoetan aditua. *El futuro de Europa. Bases para un nuevo modelo* liburuaren egilea da. Ion Andoni del Amo barriz, Telekomunikazioetako ingeniaria eta Soziologiako lizentziaduna da, Gizarte Ikerketako Eredu eta Arloetako masterra, eta Gizarte Komunikazio doktoretzea be egin ditu. Kultureagaz, musikeagaz, gizarte mobimentuakaz, teknologia barriakaz eta gizarte eta kultura aldaketeagaz lotutako gaietan ikerketa ibilbidea dauka. Gaur egun EHUn irakaslea eta NOR ikerketa taldeko kidea da.

ARANTZAZU

Milioi erdi euro kudeatuko dauz
Arantzako Udalak 2023an

Arantzazuko Udalak abenduaren 13ko ohiko osoko bilkuran onartu ebazan datorren urterako aurrekontuak. Guztira, 562.000 euro erabilteko asmoa dago eta proiektua EH Bilduren baiezko lau boto eta EAJren ezezko hiru botogaz onartu da.

Erredakzinoa

Beste alde batetik, aho batez onartu dau bilkurak udal-langileen soldatak %1,5 igotea, Eudelegaz adostuta. Aurrekontuei jagokonez, eztabaidegai nagusiak gimnasioaren mantentmenturako dirua, bideen inbentarioa eta Igorregaz alkarbanatuten dan bide zatia izan ziran.

EAJk, gimnasiorako 5.000 euroko partida bat proposatu eban, horretarako baso-dirulaguntzen dirua bideratuta, "erabilten ez dalako". EH Bilduk barriz, mantentmentua egiteko partida zehatzik behar ez zala erantzun eban, basoetarako dirua eurentzako "lehentasunezkoa" dala gehituta.

Bideen inbentarioaren inguruan, udal gobernua 14.000 euro bideratu dauz inbentarioa egiteagaz batera lur-azpiko azpiegiturak dituan planoa egiteko: saneamentua, argiteria, ura... EAJk

honen kontra egin dau, urigintza-plana eginda dagoalako eta diru hori beste hainbaten erabilteko. EH Bilduk erantzun dau, obrak egiterako orduan, hurrengo urteetarako garrantzitsua izan daitekeala. Aplikazio bat egingo da, planoa danon eskura egoteko.

Azkenengoz, Igorreko Garbe auzoa eta Arantzazu batzean dituan bidearen inguruan izetu da eztabaidea. EAJk adierazo dau, ez daukala zentzurik momentuz hau egiteak, Igorreko Udalagaz batera egiten ez bada: "Beste lehentasun batzutan gastauko geunke dirua". Halanda be, Asier Aburto alkateak defendidu dau, Igorregaz daborduko berba eginda dagoala eta Herria Ekinez dirulaguntzea bideratuko dala argiteria instalau eta bidegorria ipinteko. Gainera, argiteriaren lanak abenduaren 19an hastera espero dala aurreratu dau.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Hezkuntza legearen aurreproiektuaren kontrako greba egin dabe ikastetxe publikoetan

ELA, LAB eta Steilas sindikatuek deituta, eskola publikoko beharginek greba egun bi egin ditue, zemendiaren 30ean eta abenduaren 14an.

Erredakzioa

Hezkuntza legearen aurreproiektuaren kontra egin eta hezkuntza publikoa aldarrikatu dabe, baita Arratiako ikastetxeetako langile-riaren gehiengoak be. Lehen jar-
dunaldian, grebak %69,9ko jarrai-
pena izan eban eta bigarreanean,
apur bat gitxiago, %64 inguru.
Artea eta Zeberioko eskoletako
beharginak izan dira greba gehien
babestu dabenak, %100ean. Di-
man be, lehen egunean danek
egin eban greba eta bigarreanean,
bat bakarrik aurkeztu zan lanera.
Desbardintasun handiena, Zea-
nurikoa izan da. Lehenengoan
%85ak babestu eban deialdia,
bigarreanean barriz, %46ak. Igorre,
Lemoa eta Areatzak ikastetxe-
tan barriz, deialdien jarraipena
%50aren bueltan egon da, biga-
rren eguneko jarraipena handiago
izanik, Areatzan izan ezik. Arratia
BHIn barriz, zemendiaren 30ean
%37ak egin eban greba eta hi-
laren 14an, "aurrekoan baino
gehiago" faltau izan ziran, Galder
Olibares irakaslearen esanetan.
Aurreproiektua izan arren,
Arratia eta Zeberioko irakasle
gehienak sano kezkatuta dagoz
sakoneko aldaketarik egin ezean,
Hezkuntza legeak hezkuntza pu-
blikoari kalte egingo deusalakoan,
itunpeko ikastetxeen mesedetan.
"Jokin Bildarratzek dino hau zirri-
borroa dala, baina badakigu zer
pasauko dan" inotsan BEGITURI
irakasle batek. Ikasleak be hasi dira
mobilizetan, hezkuntza legearen
bueltan baino, "hezkuntza eredu-
a errotik aldatuteko". Horren alde,
Ikamak deituta ikasleek Hego
Euskal Herriko lau uriburuetan

egin ebezan hilaren 15ean ma-
nifestazioak.

Aldarrikapenak

Grebaz gainera, manifestazioa
egin zan Donostian, Bilbon eta
Gasteizen, hamar aldarrikapen
eginez: publikoa ardatz izango
dauan Hezkuntza legea; segre-
gazinoari aurre egin eta gizarte
kohesinoa bermatuko dauana;
publikazino-marko eta araudi
orokor eta adostua izango daua-
na; Hezkuntza lege propioa;
inbersino eta baliabide nahikoa
izango dituan Hezkuntza legea;
euskerea erdigunean ipiniko
dauana; betebeharrak eta kontrol
mekanismo zehatzak dituan;
hezkuntza sistemea osotuten da-
ben langile guztion enplegua eta
lan baldintza egokiak bermatuko
dituana; merkaduen interesen
gidaritzatik eta enpresa pribadu-
en negozio esparrutik kanpo
egongo dana eta Hezkuntza lege
parte-hartzailea, langileak aintzat
hartuko dituana.

Jokin Bildarratz

Jokin Bildarratz Eusko Jaurlaritzako
Hezkuntza sailburuak, egun tristea
zala esan eban prensa aurrean le-
hen greba egunaren ostean egin-
dako balorazioan, eta gogora ekarri
eban apirilaren 7an, aurreproiektuak,
Legebiltzarrean %90aren adostasuna
lortu ebal. Bere esanetan, lan
egiteko aukerak dagoz eta berak es-
kaintzen dau "alkarriketea, akordioa
eta alkaren artean ulertzea". Greba
deialdia kritikau eban konbakau za-
lako aurreproiektuak jentearen ere-
txia jasoteko aukerea eukanean eta
"oindino jakin barik zein izango dan
behin betiko testua".



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Bizkaiko metalgintzako langileek amaitu dabe grebaren hirugarren zikloa

Hitzarmen kolektiboa hobetuteko burrukea Arratiara ekarri eban sindikatuek zemendiaren 30ean eta 300 personatik gorako piketea borra-
ka desegin eban Ertzaintzak Arteako industrialdean.

Erredakzioa

Bizkaiko metaleko langileek, erosahalmena mantenidu ahal izateko soldata igoerak eskatuteko burruka zikloa eroan dabe aurrera hileotan. Atzen zikloan, zemendi eta abendua artean, bost eguneko greba mantenidu eban; LAB, ESK, CNT, CGT, UGT eta CCOO sindikatuak alde batetik, eta ELAK bestetik. LAB sindikatuko Iskander Agirrezabalak BEGITURI azaldu deusanez, "burruka luzea izaten dabil eta patronala berekoikeri ikaragarria erakusten dabil". Holan, sindikatuek greba arrakastatsua izan dala balorau daben arren, ez da momentuz FVEM patronalagaz akordioarik lortu.
Grebeak, aurrekoetan baino jarraipen handiagoa izan dau Arratian, batez be, Bizkaiko pikete bateratua bertaratu zan egunean. Agirrezabalak piketearen egunean, zemendiak 30, grebalariei azaldu eutsan moduan, goizeko produkzioa parau edo turnoak kendu ziran "normalean eskirol asko dagozan enpresa ugaritan". Izan be, pikete indartsua izan zan, Ertzaintzaren esanetan 300 grebalari egozan Artean. Halanda be, gehiago be izan ziran Igorren lehen orduan batutakoak.
Grebalariek 05:00etan batu ziran Igorren. Lehenengo Ormazabal-Tecnichapara joan ziran eta

bertan, grebalari bat erretenidu eta gero askatu eban Ertzaintzak; errepidea ebagita egon zan ordu eta erdiz. Handik, industrialdera eta Kelvionera mobidu ziran, bes-
telako tensino momentu barik. Igorren amaituta, Bildosolako industrialdera joan ziran grebalariek. Bildosolan, Pekos Fabricación lantokiaren aurrean batuta egozan grebalariek eta BEGITUK grabautako irudiek erakusten daben, hurrengo lantokira joateko piketeak buelte a emon ebanean, Ertzaintzak langileetako bat eroan eban. Beste grebalariek ke-
jatzan hasi eta Ertzaintza euren kontra oldartu zan. Bideoetan gerritik gorako borrakadak eta zaplastekoak ikusten diran arren, Josu Erkoreka Segurtasun sailburuak adierazo eban Ertzaintzak "legeak agindu bezala" jardun ebal. Halanda be, lau persona eroan ebezan ospita-

lera, LABeko ordezkari bi tartean. Sindikatuak salatu dau, karga "tristea eta neurritz kanpoko" izan zala: "Hau da EAJK Bizkaiko langileei opatuten deusiena?".

Erosahalmena kolokan

Metaleko beharginen artean bakarrik ez, Lan Hitzarmenen Kontseiluak azaleratu dauanez, inflazio saso honetan, EAEko langileen erdiak be ez dau aurton hitzarmena eguneratuta ikusi. Langileen %41,1 da hau, eta honeek be galdu dabe erosahalmena; izan be, honeen soldatea %3,7 hasi da batez bestean, baina KPIa %6,5ean dago. Beste alde bate-
tik, langileen %49,6 dago sektore zein enpresako hitzarmenak eguneratzeko esperoan eta egoera txarreanean, %9,3 dago hitzarmen barik lanean, Langileen Estatutuaren babes bakarragaz.



GABONAK

Heldu da Gabon sasoia Arratia, Ubide eta Zeberiora

Urteko atzen egunak dira eta hotzagaz be, ospakizun egunak izango dira hurrengoak gure haranetan. Danok izango dogu zer ospatu: txikerrenek, Olentzero eta Mari Domingiren opariak; sinisdunek, Jesusen jaiotza; familieek, batuta egongo dirala; jatunek, mahai beteak eta juergazaleek, urteari agurra eta hurrengoari ondoetorria emongo deusie, gau bardinean. Holan, danontzako egongo da zeregina datozen egunetan, Arratia, Ubide eta Zeberioiko Udal eta alkarteek hamaika ekintza antolatu dabez eta herrietan: jarduera kulturalak, kirola, kabalgatak, umeentzako gabonetako parkeak eta zelan ez, gaztainak, txokolatea eta turroia egongo dira.

Erredakzinoa

Arantzazu

Abenduak 24, zapatua
10:00etan, plazan. Auzoetatik Olentzero eta Mari Domingiri abestu Arantzazuko txistulariakaz batera; 18:00etan, eleiz portalean 564 kantua abestuko dabe presoak etxera etortea aldarrikatzeko.

Abenduak 28, eguaztena
11:00etatik 13:30era, jokoak, puzgarriak... frontoian.

Abenduak 30, barikua
21:00etan, Foterie taldeagaz rock kontzertua Herriko Tabernan.

Areatza

Abenduak 17, zapatua
10:30etik 14:00etara, nekazaritzako elikagaien produktuak eta artisautza azokea plazan. Egindako erosketa guztiek tokiko produktu loteen zozketan parte hartuko dabe.
20:00etan, The Half Nelsons taldearen kontzertua The Quiet Corner Tabernan.

Abenduak 18, domekea
09:30ean, eleiz portalean. Turroi eguna. Kotxeetan joango dira eta goiz osoko urtekerea izango da. Ubide-Siskina-Harrikurutze kobeak- Ubide. Turroia eta saldea Guraso Elkartearen eta Lamino Kirol Klubaren kontu. Izena hilaren 16a baino lehen emon 627 021 082 edo 646 355 550 telefonoan.

Abenduak 24, zapatua
17:30ean, Olentzero eta Mari Domingi badatoz, kalejirea plaza- tik. Ostein adarra eta txalapartea. Umeek taldeko argazkia egiteko aukerea eukiko dabe Olentzero eta Mari Domingigaz Gortazar jauregian. Klean Photocalla egi- teko aukerea egongo da. Guraso Elkar- teak antolatuta.

Abenduak 30, barikua
19:30ean, Areatzako Bandaren Gabonetako kontzertua. Gaia: ipuin musikalak. Areatzako Ban-

dak antolatuta.

Abenduak 31, zapatua
11:30ean, argazkia eta bideoa Urrekoatxan. Hamaiketako bertan. Bakotzak gura dauan or- duan, eta moduan igon ahal dau. 10:00etan, eleiz portalean igoten ez dakienentzat. Lamino Kirol Klubak antolatuta.
Abenduaren 26tik 29ra Lamine- txen Gaztetxean ekintzak egingo dira. Berbaldia, mahai-ingurua, bertso- saioa, umeentzako jolasak...

Artea

Abenduak 22, eguena
18:30ean, Gabon Postalen Le- hiaketaren erakusketan hasten da Kultur Etxean. Urtailearen 8ra arte.



Abenduak 24, zapatua
17:00etan, auzorik auzo abestu, pla- zatik hasita; 19:00etan, Olentzero eta Mari Domingiri harrerea plazan.

Abenduak 28, eguaztena
18:00etan, Ixabel Agirresarobe ipuin kontalaria Kultur Etxean.

Abenduak 29, eguena
10:00etan, GUPera urtekerea. 2007 eta 2017 urte bitartekoek udaletxean emon daikie izena hilaren 20ra arte.

Bedia

Abenduak 15, eguena
16:30etik 19:30era, Jaiotzearen playmobil maketea, Gabone- tako Txartel Lehiaketako ma- rrazkiak eta birziklautako mate- rialakaz egindako Gabonetako zuzatzak ikusgai Liburutegian

hilaren 22ra arte.

Abenduak 17, zapatua
10:00etan, familientzako urte- kerea: El Pobaleko burdinolara, Olentzero ikustera.

Abenduak 21, eguaztena
17:30ean, Onditz Mendizabalek gidatutako Gabonetako Liburu- maleta ibiltaria.
19:00etan, Arratiako Musika Eskolearen Gabonetako kontzer- tua, eleizan.

Abenduak 22, eguena
Gabon Jaia. 17:30ean, eskulan, marrazki, birziklautako materialakaz egindako Gabonetako zuzatzan eta postalen erakusketan; ohia- lezko boltsa eta Senegaleko pro- duktuen salmentea; Arratiako Elika- gaien Bankurako janari bilketea eta Kooperatiba Senegal alkartearentzako diru bilketea (personako euro bi).
18:00etan, Gimnasia erritmiko erakustaldia, Jauziri Dantza Tal- dearen jantzaldia eta Gabon Pos- talen zein Zuzatzan Lehiaketan sari banaketak.
19:00etan, pintxoak eta edaria.

Abenduak 24, zapatua
13:00etan, Olentzero eta Mari Domingi plazan; gaztaina erre- ak egongo dira. (Gurasoentzako informazinoa liburutegian, aben- duaren 16ra arte).

Abenduak 27, martitzena
11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara, Gabone- tako parkea frontoian.

Abenduak 29, eguena
10:00etan, Bilboko GUPera ur- tekerea, izena hilaren 16ra arte emon daiteke liburutegian.

Urtaileak 2, astelehena
17:00etan, Gabonetako zinea ludotekan.

Dima

Abenduak 17, zapatua
17:00etan, Olentzero eta Mari Domingi Antzasti Museon.

Abenduak 24, zapatua
11:30ean, Olentzero eta Mari Do- mingiri harrerea, eleizatik hasita.

Igorre

Abenduak 16, barikua
16:00etatik 20:00etara, Hiru- garren Azoka Solidarioa Agirre Lehendakaria kaleko autobus gurekuaren atzeko arkupeetan.
18:00etan, Anita Maravillas eta Portal 71ren Pintto Pintto umeentzako antzerkia Lasarte Aretoan.
18:30ean, Elena Olaveren Ahizpari gutuna liburuaren aur- kezpena Orrie liburu-dendan.

Abenduak 18, domekea
Inazio Zubizarretako Guraso Elkar- teak antolatuta, ibilbide mitolo- gikoa. 10:30ean hasita txandaka. Urtekerea Agarreko iturria baino gerotxoago izango da. Ibilbidea amaitukeran mokadutxo.
17:00etan, Zinuema. Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Na- gusiko finala zuzenean Lasarte Aretoan.

Abenduak 22, eguena
18:00etan eta 19:30ean, Arra- tiako Musika Eskolako Gabone- tako kontzertua Lasarte Aretoan.

Abenduak 24, zapatua
12:00etan, Maridomingi eta Olentzero Mikele auzotik jai- tsiko dira herrira eta kalejirea

egingo dabe.

Abenduak 26, astelehena
20:15ean, Arratiako Merkatarien Elkar- teak antolatuta, antzerki familiarra Oh-Pera eta horren ostean, 6 otzararen zozketea La- sarte Aretoan.

Abenduak 28, eguaztena
17:00etan, Zinuema, zinea umeentzat, The Snow Queen La- sarte Aretoan.

Abenduak 29, eguena
Gabonetako Umeen Parkea ater- pean eta kiroldegian.

Abenduak 30, barikua
20:00etan, Lagun beltz asko helduentzako antzerkia Lasarte Aretoan.

Abenduak 31, zapatua
11:30ean, San Silbestrea herri- tik zehar.

Lemoa

Abenduak 15, eguena
Hilaren 23ra arte, 10:30etik 12:30era eta 16:30etik 19:30era, Olentzero eta Mari Domingiri gu- tunak bialtzeko postontzia Kotxe- pin Kultur Etxean.

Abenduak 16, barikua
20:00etan, Esti Markezen Hitze- kin jolasean diskoaren aurkez- pen kontzertua Kotxepin Kultur



Etxean.
 22:30ean, Brea taldearen kontzertua Karabie Gaztetxean.

Abenduak 17, zapatua
 20:00etan, Lemoako Elkartrukeko gazteek proiektuaren aurkezpena eta 20:30ean, dokumentalaren proiektzinoa Kotxepin Kultur Etxean; 21:30ean, kopaua eta 22:30ean, dj Set, animazinoa eta jantzea Karabie Gaztetxean.

Abenduak 23, barikua
 Rockrismas Fest Karabie Gaztetxean: 19:30ean, Rockalean taldeagaz poteoa Atxetatik; 22:00etan, Old Berri Band eta Zeinke taldeen kontzertuak gaztetxean.

Abenduak 24, zapatua
 10:30ean, Olentzero eta Mari Domingi Eguna udaletxean.
 19:00etan, Olentzero eta Mari Domingi Karabie Gaztetxean.

Abenduak 27, martitzena
 19:00etan, Pintxo eta Korto Lehiaketea Karabie Gaztetxean.

Abenduak 28, eguaztena
 11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara, Gabonetako Haur Parkea kiroldegian.

Abenduak 29, eguena
 11:00etatik Got Talent ludotekan.
 19:00etan, Joseba Sarrionandia *Euskera, gure tribu ttipia* Karabie Gaztetxean.

Abenduak 31, zapatua
 12:30ean, Eneko Zamalloa Memoriala Gabonetako XI. Lasterketea, Elizondotik.

Urtilak 2, astelehena
 19:00etan, *Zuri* antzezlanakara Karabie Gaztetxean.

Ubide
Abenduak 17, zapatua
 16:30ean, urtekerea mendira. Olentzero eta Mari Domingiri gutunak eroatera; 18:00etan, Ane Gebara ipuin kontalaria eta ostein txokolate beroa eta gaztainak.

Abenduak 24, zapatua
 Olentzero eta Mari Domingiri agurra.

Zeanuri
Abenduak 17, zapatua
 19:00etan, Zeanuriko eta Igorreko Luis Iruarizaga abesbatzen kontzertua Andra Mari parrokian.

Abenduak 23, barikua
 19:00etan, Etxanderak jantza taldearen emonaldia Ibarretako frontoian.

Abenduak 24, zapatua
 17:30ean, Olentzero eta Mari Domingiren etorrerea Ibarretako frontoian.

Abenduak 26, astelehena
 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara umeen eguna. GUP. Ibarretako frontoian; 18:30ean, Aitor Intxaurreagaren *Artzaintzaren naturbidea GR 282* dokumentala Arkotxan.

Abenduak 27, martitzena
 18:30ean, Juan Manuel Etxebarriaren *Matriarkalismoa eta euskal mundua* berbaldia Arkotxan.

Abenduak 28, eguaztena
 18:30ean, umeentzat zinea Arkotxan.

Abenduak 29, eguena
 18:30ean, Aritz Ganboa de Miguelen *Bideak* dokumentala Arkotxan.

Abenduak 30, barikua
 18:30ean, Jon Urutxurturen *Eleuterioren txabolea* berbaldia Arkotxan.

Abenduak 31, zapatua
 San Silvestre urtekerea.

Zeberio
Abenduak 15, eguena
 17:00etan, Gabonetako apaingarrien tailerra Kultur Etxean.
 19:00etan, dokumentala Kultur Etxean.

Abenduak 16, barikua
 18:30ean, ballet erakustaldia

frontoian.
 19:30ean, *Kepa Junkera berpiztu* filmaren proiektzinoa udaletxean.

Abenduak 18, domekea
 10:00etan, Bizkaiko Eskolarteko Banakako Eskupelota Txapelketea.

Abenduak 19, astelehena
 18:00etan, musika entzunaldia Kultur Etxean.

Abenduak 20, martitzena
 Familia ginkanea.

Abenduak 23, barikua
 17:00etatik 21:00etara, Truke azokea.
 17:00etan, gazteentzako urtekerea Scape room-era. Plazan. Izena 16an emon daiteke 17:00etatik 20:00etara Gaztelekuan. 12-17 urte. Plaza mugatuak.

Abenduak 24, zapatua
 17:00etan, Olentzero aterpean.

Abenduak 26, astelehena
 12:30ean, herri kirolak: San Esteban jaiak Etxazon.

Abenduak 27, martitzena
 18:30ean, *Zeberioztarrak Ameriketan, lau mendetan zehar* erakusketea Kultur Etxean. Gero, berbaldia.

Abenduak 28, eguaztena
 11:30ean, gazteentzako sukaldaritza saioa.
 18:30ean, *Zeberioztarrak Ameriketan, lau mendetan zehar* erakusketea Kultur Etxean.

Abenduak 29, eguena
 11:30ean, Gabonetako parkea aterpean.
 12:30ean, San Tomas Zaharra.

Abenduak 30, barikua
 17:00etan, eskupelota partiduak: finalak eta lagunartekoak.

Abenduak 31, zapatua
 10:00etan, San Silbestre eguneko mendi urtekerea Tontorrandia. Plazan.



ETORRI AREATZARA EROSKETAK EGITERA

Urtarrilaren 15era arte

1

EROSI ZEURE BONODENDA 20 EUROTAN UDALETXEAN
 • Aurkeztutako NAN bakoitzeko gehienez 3 bono erosi ahalko dira (16 urtetik gorakoek).
 • 400 bono.

2

BONOA 25 EUROTAN TRUKATU AHAL DITUZU BONODENDA SALTOKIETAN
 BONOA behin bakarrik erabili ahalko da, hiru gai kontuan hartuta:
 A) Ordaindu beharreko kopurua 25 euro baino gutxiagokoa bada, ez da dirurik itzuliko.
 B) Bonoak metatu daitezke.
 C) Debekatuta dago bonoen truke dirua jasotzea.

Maitasunez egina!

- Umeen erreportajeak
- NAN argazkiak
- Ezkontzak
- Ikastaroak

www.ilunefoto.com
 684 080 827
 @ilunefoto

Lehendakari Agirre 2 - LEMOA

TXIN-TXIMINI

- Tximinien garbi-ikuzia
- Ikuskapena telebista kamarakaz
- Txosten teknika
- Instalazioen erabarritzea eta mantenimentua

Telefonoa 657 77 94 58
 info@txin-tximini.com
 TXIN-TXIMINI.COM • Bizkaia



LIBURUA. JON URUTXURTU

Gorbeiaiko "Eleuterioren txabolea"ri buruzko liburua aurkeztuko da Zeanurín

Hilaren 30ean, 18:30ean, *Eleuterio Goikoetxea eta "Eleuterioren txabola"*. 1922-2022 izenburuko liburua aurkeztuko dau Jon Urutxurtuk Arkotxan.



Mendizaleak Eleuterioren txabolan 1922an. Ojanguren-en argazkia.

Erredakzinoa

Garagarriaren 9an, "Eleuterioren txaboleak" 100 urte beteten zituola-ta, mendeurren ospakizuna antolatu eban Zeanuriko Udalak Igeriñon (Gorbeia); bertan, Eleuterio Goikoetxea eta bere ekimen aitzindaria gogoratu eben, eta jatorrizko mendiko aterpe-ostatuaren hormetako batean plaka oroigarria inaugurau eben.

Egilearen arabera, ikerketa-lan hau idaztera arrazoi desbardi-nak bultzatu eben: "alde batetik, Eleuterioren txaboleak 100 urte beteteak; bestetik, sasoi haretarako bere inizatibek izan eban izakera aitzindariak; eta azkenik, gu be konturatu gaitez gaur egun barritzailetzat daukaguzan ekimen batzuk, oin dala 100 urte gure herri-ideek egiten ebezala. Izan be, Eleuterio Goikoetxearena inizatiba aitzindaria izan zan, Euskal Herriko lehen mendiko aterpe-ostatu eregi eta zabaldu eban eta".

Liburua euskeraz eta gaztelaniaz idatzita dago eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzeagaz argitaratu da. 96 orrialdek osotzen dabe eta testuez gain, 65 bat argazki, mapak, planoak, marrazkiak... biltzean ditu. Egitureari jagokonez, Eleuterio Goikoetxea jaioten dan inguruari eta bere biografiari buruzko zehetasunak emonaz hasten da; jarraian Eleuterioren txabolea sortzean dan testuingurua aztertzen da, mendiko aterpe-ostatu Gorbeian eregitera zerk bultzatu eban zehaztuz; ondoren, eraikuntza prozesua eta 1923an eta 1927an egin zituen handitzeak aztertzen dira. Atzen partean mendiko aterpe-ostatuaren salmentari buruzko gorabeherak eta jaube bariak aitazten dira. Mendeurrenaren

ospakizunei buruzko informazioagaz amaitzen da liburua. "Hasieran lan labur bat izango zala pentsetan neban, baina han eta hemen, artxibo desbardinetan arakatuz eta alkarriketen bidez eskuratutako informazioagaz, ikerketa luzatu egin da, eta osatzeak eta amaitzeak uste neban baino denpora gehiago eroan deusta", dino egileak.

Eleuterio mendiko turismoaren aitzindaritzat jo daiteke, 1922an Igeriñon (Gorbeia) Euskal Herriko lehen mendiko aterpe-ostatu zabaldu eban eta. Iniziatibek euki eban harrera ona ikusiz, lehenengo 1923an eta gero 1927an barritau eta handitu egin eban. Eregiteko zein 1923ko handitzerako Aldundiaren dirulaguntzak hartu zituan.

Mendiko aterpe-ostatutik hur ermita txiki bat be eregi eban —gaur egun be han dago—, Edurretako Amaren ermitea, udan domeketan eta jai egunetan artzainek eta bisitariak mezea entzuteko aukerea izan eien.

Egileak zera azpimarratzen dau: "Eleuteriok negozio pribau moduan eregi eta zabaldu eban Igeriñaoko aterpe-ostatu, baina momentu guztietan bere herriko ekonomia dibersifiketako aukeratzat hartu eban mendiko turismoa, eta Zeanuriko udal agintariei eskatu eutsen Gorbeia sartzeako azpiegiturak hobetzen ahalegintzea eta mendiko alkarriketaz eta Euskal Mendizale Federazioagaz alkarlanean ibiltzea".

Gerra Zibilean mendiko aterpe-ostatuak kalteak jasan zituan eta Eleuterio bera, lehenengo kartzelaratu izan zan eta gero deserriratu, eta aterpe-ostatuaz bere emaztea, Gillerma Uriarte, eta seme-alabak arduratu behar izan ziran.

1942an Espainiako Mendizale Federazinoko Euskal Ordezkaritzek aterpe-ostatu erosteko proposamena egin eutsan eta "behartuta" izan bazan be, Eleuteriok onartu egin eban: atal bi erosi

eutsazan eta hirugarrenagaz bera geratu zan. Federazioak 10.000 pezeta ordaindu eutsazan, beste 12.000 erositako atalak egokitu eta barritetako erabili zituan eta 1943ko garagarriaren 11n berri-naugurau eban. Bien bitartean, Eleuteriok eta bere familiak geratu ziran atalagaz jarraitu eben negozioan.

Eleuterio 1956ko maiatzaren 1ean hil zan eta familiak 1957an Bilbao Alpino Club-ari saldu eutsan bere parte: Gillerma alar-gunak eta Begoñe alabak sinatu ebezan salmenta eskriturak.

Urte berean, 1957an, Federazioak bere jaubetzapean zituan atal biak salgai ipini zituan: bata Juventus S.D.-k erosi eutsan eta

bestea Iberduerok.

Beste sasoi batean Eleuterioren txabolea izan zan gaur egun Igeriñon jarraitzen dau, hiru zitatan banatuta, zati bakotxaren jaubeak Iberdrola (Arnotegi Mendi Taldea), Bilbao Alpino Club eta Juventus S.D. alkarriketaz izanik.

Urutxurturen arabera, "liburuetan errege-erreginak, konkistatzaileak, zientzialariak, artista ospetsuak... agertzen dira baina, badagoz gizon eta andra batzuk liburuetan azaltzen ez diranak, eta euren ekintzengaitik, ekimenengaitik, ekarpenengaitik —tokian tokikoak izan arren— eta ibilbideagaitik go-goan eukitea merezidu dabenak. Holango persona bat Eleuterio Goikoetxea Goikouria da".

Eleuterio Goikoetxea: bere bizitzari buruzko zehetasun batzuk

Erredakzinoa

Eleuterio Goikoetxea Goikouria, Zeanurin jaio zan 1888ko urri lehenengoaren 6an Rotaetxe familiaren jaubetzakoa zan Zubiate izeneko etxean eta hor bizi izan zan Gerra Zibilaren lehenengo hilabeteetara arte. Bere aita, Felipe Goikoetxea, rotaetxetarren administratzailea izan zan eta kargu hori aitarengandik heredau eban Eleuteriok.

Ez zan oso handia altueraz eta gorpuzkeraz, eta batez be gerra osteko urteetan, ez eban osasun onik izan, bihotzeko arazoak izan ebazan.

1909an soldadiskarako altuerrea neurtuteko fitxan "arotza" zala esaten zan, ezkontza-partidan "ebanista" zala eta heriotza ziurtagirian "baserritarra" zala. Baina batez be, eraikuntzan eta finka tasatzaile moduan egiten eban lan eta Bilboko Portuko Obra Batzordeko enplegadu be izan zan. Auzokideen artean persona errespetaua zan, eta sarritan gatazketan arbitraje edo tartekari lanak egiteko deitzean eutsien.

1915eko urtailaren 23an Gillerma Uriategaz ezkondu zan eta 10 seme-alaba izan ebezan: Andoni, Iñaki, Karmele, Mikel, Arantza, Elisabete, Begoñe eta Jon Aingeru, beste bi jaio eta gitxira hil egin ziran.

Sinismen erlijioso sakonak zituan: Zeanuriko Junta de Acción Catolicako idazkaria izan zan eta Igeriñaoko aterpe-ostatu inauguratzea eta mendiko alkarriketaz eta Bilboko Portuko Obra Batzordeko enplegadu karguek emoten deutozan etekinak gehitu behar jakoz".

Eleuterio mendiko turismoaren aitzindaritzat jo daiteke, 1922an Igeriñon (Gorbeia) Euskal Herriko lehen mendiko aterpe-ostatu zabaldu eban eta.

nismoa euki eban: EAJko kidea zan. Zeanuriko Udalean zinegotzia izan zan 1914. urtearen hasikertatik 1917. urtearen amaierara arte. 1931ko apirilaren 12ko Udal Hauteskundeetan, udal batzordea osotzen eben 10 zinegotzien artean —7 EAJkoak eta 3 tradizionalistak—, boto gehien lortu zituan hautagaia izan zan, eta alkate aukeratu eben aldeko 9 botogaz eta boto zuri bategaz. Beraz, II. Errepublikako Zeanuriko lehen alkatea izan zan.

Gerra Zibilean, atxilotu eta Larinagako espetxean kartzelaratu eben. Ondoren, deserriratu egin eben eta Oñan (Burgos) egon zan.

Nazionaliek poderea hartu ebenean, Gubernu Zibileko Comisión Provincial de Incautación de Bienes-era Zeanuriko Udaletik bialdu eben txostenean Eleuteriori buruzko holango datuak emon ebezan: "(...) altxamentuaren garaian Zeanuriko alkatetza eta Ordena Publikoaren burua izatea ekarren Defentsarako Batzordearen presidente karguak bete zituan. Separatista eta joera horren zuzendaria bere herrian, eta horregaitik oso ondo ikusia eta konsideraua Espainiaren aurkako buruzagien artean. Egoera ekonomikoari jagokonez, udako hotel moduko baten jaubetea dauka Gorbeian, mendi aterpea deritxana, eta 5.000 pezeta inguruko balioa daukana; uste da beste 20.000 pezeta eskudirutan dituala. Horrerik guztiari rotaetxetarren administratzaile eta Bilboko Portuko Obra Batzordeko enplegadu karguek emoten deutozan etekinak gehitu behar jakoz".

Eleuterio mendiko turismoaren aitzindaritzat jo daiteke, 1922an Igeriñon (Gorbeia) Euskal Herriko lehen mendiko aterpe-ostatu zabaldu eban eta.

1.956ko maiatzaren 1ean hil zan, 68 urte zituala, bihotzekoak jota.



Eleuterio, Gillerma eta familia.

Gillerma Uriarte

Eleuterio Goikoetxeak 40 urtetik gora emon zituan Gillerma Uriategaz (1891-1978). 1915ko urri lehenengoaren 23an ezkondu ziran.

Gillerma 1891ko bagilearen 21ean jaio zan Ipiñaburu-Undurraga (Zeanuri) kofradiako Martiartu baserrian, eta bederatzi seme-alaba izan zituan familiako gazteena zan.

Andra indartsua, ekimen eta nortasun handikoa zan, eta ezbehar askori aurre egitea egokitu jakon. Gerra Zibilean, batez be matxinatutako bandoak poderea hartu ostean, eta senarra kartzelan eta deserrian egon zan urteetan, zortzi seme-alabako familiaren ardurea hartu behar izan eban.

Senarra hil ondoren, 1956ko maiatzaren 1ean, bere esku geratu zan mendiko aterpe-ostatuaren parte kudeatzea, 1957ko maiatzean saldu eban arte. Tarte horretan Gillerma eta beragaz bizi ziran Elisabete eta Begoñe alabak arduratu ziran negozioaz.

Jon Aingeru semea 1960ko abuztuan abadetu zanean, Gillerma beragaz bizitera joan zan destinau eben udalerrietara: lehenengo, Dimara; gero, Apatamonasteriora eta atzenik, Abadiñora.

1978ko abuztuaren 13an, 87 urte zituala, Abadiñoko abadetxean hil zan. Zeanurin lurperatu eben.



• Kalidade goreneko zainketak • Kasu bakotxaren arreta personalizaua • Bere lanagaz konprometidutako profesionalak • Ondo hornidutako instalazio abegikorak, adinekoak etxean bezala sentidu daitezkan • Arratiako Egoitza bere egoiliar guztientzako bizi-kalidade ezin hobea ziurtatzeagaitik bereizten da • Menpekotasun-egoeran dagozan adineko guztiak maitasunez eta errespetuz tratetea.



Arratiako
Udalen
Mankomunitatea

IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN



**Gabon
zoriontsuak
eta urte
barri on!**

2023



Zoriontasunez beteriko Gabonak opa deusueguz herritar guztiori, urtea ondo amaitu eta hurrengo hobeto hasi.

Zeanuriko Udala



**Zorionak eta
urte barri on!**



**Jai egun
zoriontsuak
eta
urte barri
on!**

2023



MENDIA

Gorbeia Suzienen datak jakitera emon dabez

Erredakzinoa

Gorbeia Suzien-eko 2023ko edizioa ISF-k, Nazinoarteko Skyrunning Federazioak antolatuten dituan Skyrunner World Series-tako Premier proba izango da. Lasterketak 2023ko urri lehenengoaren 22-24ko astegoienean jokatu dira Zeanurin. Skyrace eta 21K lasterketak 23an, zapa-tuan, egingo dira. Skyrunner World Series zirkuitua apirilaren 29an hasiko da Calamorro Skyrace lasterketeagaz, eta Frantzia, Austria, Espainia,

Portugal, Kanada, Peru, Suitza, Italia eta Euskal Herria igaroko dituen 13 proba hartuko ditu. Izena emoteko datei jagokonean, Skyrace lasterketako izen-emotea martiaren 1etik 26ra bitartean egongo da zabalik www.gorbeiasuzien.eus atarian. Ondoren, martiaren 31n egingo dan zozketa bidez osotuko da urtekerako parte hartzaileen zerrenda eta baita itxaron zerrenda be. 21K lasterketako izen-emotea apirilaren 3an zabalduko da, goizeko 10:00etan, eta dorsalak amaitu arte egongo da zabalik.



MOTORRAK

Bueltan da Enduro taldea

Erredakzinoa

Zeanuriko Enduro Taldea urtean behin batuten da mendiko motor, quad eta buggyakaz Otxandiora joateko, hogeta hamargarren edizioa izan da aurtengo zemendikoa. Pedro eta Iñigo Sagarna anaiek antolatuten dabe eta Pedrok azaldu dauanez, urtero egiten dabe antzeko ibilbidea, "asko goaz eta kontrolpean izateko, osterantzean jentea galdu ahal da". Urtekerak honetan Dakarrek pilotua izan dan Fausto Motaren parte-hartzea be izan dabe.



PELOTEA

Master Laboral Kutxako txapela jantzi dau Amaia Aldaik kaiolan

Olatz Arrizabalaga 22-15 gaintitu eban dimoztarrak abenduaren 10ean jokaturako finalean. Lau eta erdiko bigarren final bat jokatu dau, hilaren 17an, Miriam Arrillagaren kontra Tolosan.

Erredakzinoa

Master Laboral Kutxako Lau eta Erdiko Txapelketea da andren urteroko zita garrantzitsuenetakoa eta aurtengoan be, Amaia Aldaik irabazi eta jantzi dau txapela Zornotzan. 22-15 irabazi eban Arrizabalagaren kontra jokaturako finala. Bardinduta egon zala azaldu dau BEGITU, irabazteko kakoa "hasikeratik lasaiago eta konzentrautrago" jokaturea eta galdutako tantuak izan zirala defendidu dau: "Berak bederatzi galdu ebazan, nik lau bakarrik". Beste aldean, dimoztarraren us-tez "Arrizabalaga presino handia-

goagaz egon zan, denpora guztian atzetik joan zalako". Izan be, Aldai 6-1 irabazten hasi zan eta Arrizabalagak bardinduteko saiakerak egin ebazan arren, ez eban lortu. 8-8 eta 16-13 izan ziran hurbilen egon ziran momentuak baina gero, Arrizabalagak dejada bat txapara bota eta Aldairena izan zan gainontzeko partidua.

Diario Vascoren finala

Lau eta erdiko bigarren txapel bat irabazteko aukerea izango dau Aldaik hileon, Diario Vascoren Txapelketea. Abenduaren 17an, 11:00etan Tolosan, Miriam Arrillaga izango da bere aurkaria, Laia

Salsamendi larritasunez lesionau ostein. Finalaurrekoan Enara Gaminde izan zan aurkaria, 22-8 irabazi eban Aldaik.



ESKALADEA

Tanzaniako umezurtzengana eskaladea hurbilduko dau Itziar Zabalak

Dirua batzeako kanpaina baten ostean, eskaladarako materiala erosi eta Jipe Moyo Centre umezurztegira eroango dau lortutakoa eskalatzaile dimoztarrak.

Erredakzinoa

Itziar Zabalak, eta bere bikotea dan Ekhi Aboitiz arraunlariak, Gabonetako oporrak Tanzanian pasatea pentsau eben eta bertan eskalatzen dan ala ez ikertu bitartean, topau eben Climbing for a Reason -Arrazoi batengaitik eskalatzen- ekimena. Musoma herrian, Jipe Moyo Centre umezurztegia dago eta Zabalak azaldu dauanez, bertako umeak, txiletar batzuen laguntzeagaz rokodromo bat eregi eta eskaletan hasi ziran. Bideagaz jarraituteko joango da abenduaren 17an Zabala Musomara, bertako lehen eskalatzaile profesionala. Bertan, eskaletan erakutsi eta inguruko hatxetan bide barriak zabaldu dauz dimoztarrak, baina ez dau gura izan esku-hutsik joan. Dohaintza kanpaina bateri esker 1.525 euro lortu ostein, medikamentuak, erropea eta diruaz gainera, eskaladarako material ugari daroa: katu-hanka zapatilak, arnesak, rokodromorako piezak, magnesioa eta abar. Kanpaina hilaren 17an amaituko da, go-



fundme.com webgunean, "eskaladako materiala Tanzaniara" topauta parte hartu daiteke. Zabala sano pozik agertu da momentuz lortutakoagaz, baina jente gehiago animau gura dau "zeozertxo emotera", hemengo laguntza txiki bat han asko da-ta. Tanzanian egon bitartean, Instagrameko @tanzaniarekinbat kontuan egingo dau ekimenaren jarraipena Zabalak.

Climbing for a Reason

Txileko alkatere honek, eskalatze-ko leku onak diran baina pobrezia

nagusi dan lekuetako biztanleak lagundu eta eskaladan hezten dauz. Holan, biztanleak ingurua-gaz konektatu bakarrik ez, euren-tzako diru-iturri posible bat izango dalakoan. Nepal, Surinam, Patagonia eta Pakistanen eroan ditue aurrera proiektuak eta Tanzaniara aurtan heldu dira. Musomatik pasautako bidaiari batek emon eutsan abisua alkatereari, bertako granitozko hatx erraldoiak ikusi ostein. Holan, alkatere Jipa Moyo Centrera heldu zan, adin guztie-tako 60 bat umezurtz babesten dauzan zentroa.

MENDIA

"Ubiden mundu bat daukazue zain!"

Ubidestroi Traileko 2023ko lasterketea maiatzaren 27an izango da.

Erredakzinoa

Ubidestroi Traileko antolatzaileek datorren urteko lasterketarako aukeratutako lelo hori nondik ete datorren galdetuten bazabizie, hauxe dala erantzuna dinoe: "Ubide Arratiako ezezagun handia danik ezin dogu ukatu. Bai. Ubide! Ez Ubidea! Barazar deritxan duna handi horren atzean dagoan herritxo nomada hori! Baina Ubiden badago hareaz gaindi oasi txiki bat. Orbel eta larre berdez osotutako mundu bat".

Aurtengo urri lehenengoan antolatu da Ubidestroi Trail lehenengoz. "Arrakasta itzela! esan eben ganbeluetan hurbildu ziran trailaren errege-erreginek. Ibilbide izugarria, talo eta sagardaoa guztiontzat, puzgarriak, musikea,

festa... Faltan botaten zan lasterketa herrikoi bat!" esan eben bertaratutakoek. "Auzolanaren goltetik tiraka ibili ziran boluntarioek egin eben posible hori danori" dinoe antolakuntzakoek.

"Jasangarritasunaren aldeko gure konpromisoak urrietan Gorbeian egongo dan proba kopurua ikusita, gurea uda aurrera aurreratzera behartu gaitu. Ingurumena zaindu gura dogu danaren gainetik".

Ibilbidea zeozertxo aldatuko dabe. 29 kilometro eta 2.000 metro desnibel positibo eukiko ditu. Eta lehenengoz umeentzako Ubidestroitxo antolatuko dabe beste nobedade batzuen artean.

Urtailaren 16an zabalduko dabe 300 dorsalen izen-emotea. "Ez galdu aukerea! Ubiden besoak zabalik hartuko zaituegu".



ERRUGBIA

Bera Beraren kontrako garaipena lortu eban Arratiko Zekorrak taldeak San Txismen

Erredakzinoa

Ekin Eraikuntzak Arratiko Zekorrak taldeak aurtten etxean jokatu eta irabazitako lehen partidua izan zan Bera Beraren kontrakoa, 24-8ko emaitzeagaz. "Partidu serioa izan zan bion aldetik, partidu polita; guk gure beharra ondo egin genduan eta bost puntuak etxean geratu ziran", azaldu dau Ekaitz Duñabeitia entrenatzaileak.

Donostiarrak zigor kolpe bateri esker irabazten hasi ziran arren, arratiarrak nagusi izan ziran jokoan, gainera arratiarrak jokalaria bat gehiagogaz egozan zelaian. Holan, hogeigarren minuturako

aurretik egozan, Andoni Lucasen entseguagaz, Mikel Gonzalezek biribildu ebana. Bardinek lortu eben berrogeigarren minutuan be jokaldia amaitutea eta gero, Iñigo Galleterok eta Iban Marmolejok lortu ebezan beste entsegu bi, baina atzen kolpea sartu barik.

Holan, zekorrak atzenurren postuan dagoz zortzi talderen sailkapenean, atzenak diran La Unica taldeagaz sei puntuko alde daukie. Aurretik, sei puntuko aldeagaz be, lau talde daukiez: Nerbioi, Gaztedi, Bera Bera eta Zarautz/Beltzak. Gaztediren kontra urtailaren 7an lehiatuko dira San Txismen.

ZIKLO-KROSA

"Herri honek badauka etorkizunik ziklo-krosean"

Leire Aurrekoetxea AZEko presidentea herritarren erantzunagaz eta antolaketarako gaitasunagaz harro agertu da: "Goragoko kategorietako lasterketak antolatzeko kapazak garala probau dogu".

Erredakzinoa

Abenduaren 10ean eta 11n, ziklo-krosean murgildu da aurtten be Igorreko herria. 1977. urtetik ospatuten da lasterketea eta aurtengoan, lehenengoz egin da gaztetxoek jardunaldia be. Holan, gaztetxoek lasterketak eta Txiki Kopea lehiatu ziran zapatu goizean eta domekan, Igorreko XLV. Nazinoarteko Ziklo-krosa. Arratia Ziklista Eskolatik, poz-pozik agertu dira astegoiakategoria guztietan emondakoagaz. Badaukie zer ospatu, jentearen zorion kinuez gainera, sarituak be izango dira eta.

Izan be, Igorrekoa izan zan Txiki Kopako atzen lasterketea eta gainera, etxean geratu da kopea. Peio Legina igorreztarra estu-estu heldu zan sailkapeneko lehen postuan Igorrera eta atzeko biak

puntu bakarreko aldeagaz eukita be, Leginak lehen postuari eutsi eta etxeko lasterketea irabazi eban. Beste alde batetik, Xabier Cerro be izango da saritua, kro-noeskaladan hirugarren egiteagaitik. Txirrindulaz gain, eskoleak berak be jaso dau zidarrezko domina, urtean zehar Txiki Kopearen antolaketan egindako lanagaitik.

Domekan osterera, lehiakortasun maila igon zan Olabarriko zirkuituan. XLV. Nazinoarteko Ziklo-krosa egoan jokoan, kadete, jubenil, hogeta hiru urtez azpiko eta elite mailako andra zein gizonen artean. 220 txirrindulari batu ziran guztira, estadu mailakoak gehienak baina baita Belgika eta Frantziatik heldutakoak be, eta Puerto Ricoko bat. Elite mailan, Anton Ferdinande eta Lucia Gonzalezentzako izan ziran urreak. Hogeta

FUTBOLA

Lemoako Harrobi eta Arratia Bren arteko derbian Igorrekoak izan ziran garaile

Erredakzinoa

Arratia Bk lidertzan egoan Lemoako Harrobiri irabazi eutsan 1 eta 2ko emaitzagaz. Gizonezkoen Arratia A taldeak osterera lidertzea eskuratu dau atzen sei partidua jarraian irabazita.

Eguenean, hilak 8, jokatu eban gizonezkoen Arratia A taldeak hamahirugarren jardunaldiko partidua Zaldua A taldearen kontra etxetik kanpo eta seigarren garaipena jarraian lortu eban 0-2 irabazita. Garaipen honek lidertzan jartzeko balio izan deutsa. Hamahiru jardunaldiren ostean lehen postuan dago Arratia 28 puntugaz. Datorren partidua Urbietan jokatuko dau hilaren 17an arrastiko 17:30ean, Otxarkoaga A taldearen kontra.

Lemoako Harrobi eta Arratia Bren arteko derbia

Zapatu arrastian, hilak 10, jokatu zan arratiarren arteko derbia Arlona-gusia zelaian eta Arratia B izan zan 3 puntuak etxera eroan ebazana.

Etxeko taldea aurreratu zan eta des-kantsura bana heldu ziran, bigarren zatian osterera Koldo Reka-gorri jokalariai Arratiaren bigarren gola sartu eta hiru puntuak eskuratu ebazan. "Jente asko egon da, espero zan moduan. Gu baino hobeto egon dira eta Zorionak emotea baino ez jaku geldituten" adierazo eban Lemoako Harrobi taldeko kide batek. Arratiako presidentea osterera hau esan eban: "Giroa benetan ederra, atzen urteetan behintzat ez dabela holako girorik ikusi esan deuskue, tratu ona danon artean...". Hamahiru jardunaldiren ostean Lemoako Harrobik lidertzea galdu dau eta bigarren postuan dago 27 puntugaz liderragaz bardinduta eta Arratia B hamargarren postuan dago 17 puntugaz atzen lau partidua jarraian irabazi ostean. Datorren partidua Lemoako Harrobik etxetik kanpo lider dan Amorebieta Bren kontra jokatuko dau hilaren 17an, 18:15ean. Arratia Bk osterera Igorreko Urbietan jokatuko dau hilaren 17an 19:45ean Etxebarri B taldearen kontra.

hiru urtez azpikoen artean barriz, Gorka Corres eta Natalia Alonso izan ziran garaileak.

Munduko Kopea helburu

Leire Aurrekoetxea AZEko presidentearen esanetan, Igorrek probau dau barriro be Munduko Kopea antolatuteko gai dala; bai alkartearen antolaketa gaitasunaren partetik, bai boluntarioei esker. Holan, Munduko Kopea bueltan ekarte da helburua baina Aurrekoetxeak argitu dau, denporea beharko dabela. Izan be, oingo premina handiena txirrindularitza eskolarako inbersinoak egitea da: "Furgonetea aldatu behar dogu, lasterketaren batera ez gara heldu autoa bidean apurtu dalako eta daukagun lokala, trasteleku bat da". Gainera, atzen urteetan talde-aldeketa handia egon da, bai boluntarioen aldean bai zuzendaritzan. Holan, momentuz hurrengo urtean kategoria bardina jokatuko da, baina helburua begi bistatik kendu barik.

Sailkapena Elite gizonezkoak

- 1-. Anton Ferdinande 1:02:44
 2-. Kevin Suarez Fernandez +0:08
 3-. Gonzalo Inguazo Macho +2:14

Elite andrazkoak

- 1-. Lucia Gonzalez Blanco 00:46:28
 2-. Sofia Rodriguez Revert +1:23
 3-. Irene Trabazo Bragado +3:03



Derbiko irudia.

Andrazkoen Arratia A eta B


Hilaren bigarren astegoinenean ez dau partidurik jokatu Emakumezkoen Nazional Lehenengo Mailako taldeak. Datorren partidua hilaren 18ko eguerdian, 13:15ean jokatuko dau Arratia Ak Eibar B taldearen kontra. Hamabi jardunaldiren ostean hamahirugarren postuan dago Arratia 11 puntugaz.

Andrazkoen B taldeak hilaren 11n jokatu eban Ugao talde liderraren kontra etxetik kanpo eta 6-1 galdu eban. Hamaika jardunaldiren ostean Arratia B laugarren postuan dago 18 puntugaz. Datorren partidua etxean jokatuko dau andrazkoen bigarren taldeak Ariz taldearen kontra hilaren 18an arrastiko 16:00etan.

ERAKUSKETEA

Zeberio eta Amerikak, lau mendez lotuta

1534. urtetik aurrera Zeberiotik "Indietara" joan diran 180 zeberioztarren, eta euren ondorengoan, jarraipena egin dau Kepa Perezek. Istorio honeek erakusketa eta berbaldi baten bitartez azaleratuko dauz abenduaren 27an.



Erredakzinoa

Kepa Perez Urraza, EHuko irakasle jubiladu, Pedagogian doktore eta Zeberioko ondare kulturalaren ikertzaile eta bultzatzailea da eta bere atzen ikerketea izan da *Zeberioztarrak Ameriketara, lau mendetan zehar*. Holan, zeberioztarrek euren arbasoen istorioak ezetuteko aukerea izango dabe abenduaren 27an eta 28an. Lehenengo egunean, Zeberioko Kultur Etxean zabalduko da erakusketea 18:30ean eta 19:00etan, berbaldia be emongo dau Perezek. Artxibo historikoetan murgilduta ibili ostean, Kepa Perezek 1534tik 1970era arte Ameriketara joandako 180 zeberioztar topau dauz; tartean badagoz Filipinetara joandako batzuk be, antxina ez ziralako desbardintzen. Berbaldian istorio horreetako

batzuk entzuteko aukerea egongo da. Berbarako, gizateriaren historia luzeko bost gertakari garrantzitsutan parte hartu dabene zeberioztarrenak: espioitza, gerrak eta iraultza, bai eta Estatu Batuetako atzen hauteskundeak be. Danetan izan dabe protagonismoa zeberioztarrek. Erakusketan oster, persona famadu horreen argazkiez gainera, beste atzerriratu askoren argazki eta sare familiarrak egongo dira ikusgai. Ziur ikusleetako askok euren antxinako arbasoak topauko dabezala, BEGITUko kazetariok be eroan dogu sorpresaren bat dokumentuotan. Gainera, XVI. mendetik aurrerako dokumentu originalen argazkiak, gutunak, "Indietara" joateko bai-menak eta abar egongo dira. Bai eta zeberioztarrek atzerrian zabalduko negozio eta eregitako eraikinen argazki zaharrak be.

LIBURUA

Mikel Urkixok *Hustu artekoak* poema liburua kaleratu dau

"Bat-batean, bulkadaz eta desesperazinoz" idatzitako 40 poema jasoten ditu *Hustu artekoak* Arteako Mikel Urkixoren poema liburuak. Maitasun eta hartu-emonen gaineko poemak dira. Autoekoizpena izan arren, Erroteta argitaletxeko Joseba Berriotxoaren laguntzea izan dau egileak eta Iñaki Landa ilustratzaileak egin dau azala. Igorreko Marrak liburudendan dago salgai.

Erredakzinoa

Mikel Urkixo Aierdi Euskara eta Literatura irakaslea da Arratia Institutuan. BEGITUrako kolaborazinoak be egin ditu Literatura txokoa sailean.

Zergaitik liburu hau? zein izan zan sortze prozesua?

Liburu hau dago makalaldi baten idatzia. Igaz, Gabonetan, holango makalaldi bat izan neban eta neure buruari esan neutsan "zergaitik ez dozu idazten?". Eta horixe egin neban, idazten saiatu nintzan. Hasi nintzanean gauza laburrak ateraten jatazan, ez jatan ezer luzerik ateraten eta poemak egitea ebatzi neban.

Eta holan, bata bestearen atzetik atera ziran danak laupabost egunetan. Bat-bateko poemak dira. Bat-batean sortuak dagoz.

Laubapost egunetan 40 poema?

Bai, modu konpulsiboan atera ziran, bulkadaz eta igual desesperazinoz dagoz idatzita. Ondoren sortu ziran zalantzak, zer egin poema horreekaz? merezidu dau argitaratzea? badauka baliorik? Bat-batean sortutako lan batek badauka balio literariorik? Baina atzenean animau egin nintzan makalaldiaren isla diralako eta argitaratzea ebatzi neban.

Zenbat aleko edizinoa da? Non aurkitu daiteke liburu?



150 ale atera nebazan eta ia danak saldu dodaz, baina gehiago atera behar badira, aterako dodaz. Inguruan salduta, ni pozik. Hemen Igorren ipini dot salgai, Marrak liburudendan. Arrigorriagan be ipini dot ze ni asko ibilia naz han, AEK-n lanean, Hego-Uriben. Eta horregaz eta inguruko jenteari saldutakoagaz pozik nago.

Badaukazu beste proiektu literariorik?

Bai, zeozer badaukat, baina ez dot aurreratu gura, ze igual ez dot ezer egingo. Ea zer ateraten dan, igual poesia baino beste zeozer landuko dot.

ALKARTRUKEA

Migrazinoa landuko dabe Lemoako Elkartrukeko gazteek

Erredakzinoa

Abenduaren 17an, 20:00etan, Elkartrukeko gazteek urte amaierako lanaren aurkezpena egingo dabe Kotxepin Kultur Etxean. Aurten, "Denok etorkinak, denok ongi-etorriak" izenburupean, migrazinoa landuko dabe. Lanaren aurkezpenaren ostean, dokumental bat proiektuak da. Aurkezpena, hurrengo egunean dan Persona Migratzaileen egunagaz lotuta dago.

Aurkezpenaren ostean, 21:30ean, Karabie Gaztetxean kopaua egongo da eta jaiak jarraituko dau dj Set, animazinoa eta jantzeagaz. Hip-hop, funky,

afro-music, reggae-dancehall eta dembow estiloetako musikak ipiniko dabe jantza giroa.

Elkartrukea

Lemoako Udalak, 2013 urtean martxan ipinitako proiektua da Elkartrukea. Herrian dagozan arazo edo beharrianak landuten ditu Udalak gazteakaz, eta gai horren inguruan sensibilizetee, edota, arazo horrerri aurre egiteko plan bat sortzea da prozesuaren helburu nagusia. Gaiak, urtean-urtean aldatuten dira, baina erabilitako metodologia antzekoa izaten da. Urte guztian zehar aurrera eroaten dan programa bat da.



ANTZEZLANA

Ados Teatroa konpainiak
Lagun beltz asko antzezlanak
dakar Lasarte Aretora

Erredakzioa

Garbi Losadak idatzi eta zuzendutako *Lagun beltz asko* komedia baltza abenduaren 30ean, 20:00etan, ikusteko aukerea egongo da Igorreko Lasarte Aretoran. Ramon Ibarrek, Asier Hormazak eta Josu Ormaetxek egingo dabe aktore lanak sinismen eta printzipioei begiratzen deusan kontakizun honetan. Errealidadeari lotutako istorio bat da; persona ezezagunari, mi-

gratzaileari, beste erlijino bateko jarraitzaileari, gizarte-klase ahulgokoari edo bestelako joera sexuala daukanari jentek deusan bildurra edo arbuioaren gainekoa. Testua, gizatasunez beteta dago eta gizakiaren miseriak erakusten ditu. Komediatik dramara doa eta danok desorekatik ze hur gogozan erakusten dau. Baita hiltzaile izatetik be, ekintzaz edo omisinoz. "Inork ez daukalako arazorik atzerriarragaz kirolaria edo aberatsa bada, baina ez bada..."

LIBURUA

Ahizpari gutuna liburuaren
aurkezpena Orrie liburu-dendan

Erredakzioa

Liburuaren aurkezpena, hilaren 16an izango da 18:30ean. *Ahizpari gutuna*. Mari Paz Jimenez eta *pintura* liburua, Elena Olaveren hitzen eta Irimarraren irudien alkarlanaren bidez gaututako proposamena da. Mari Paz Jimenezen artelanak oinarri hartuta, liburuaren helburua artistearen lana ezetu arazotea da, modu poetikoan. Elena Olave Duñabeitiak (Durango, 1997) 2020an Bizkaiko

Foru Aldundiaren Lauaxeta poesia saria irabazi eban, 35 urtetik beherakoen kategorian, *Zeldak-Gorputz honetatik* poema bildumeagaitik.

Zu non, han DA!

Liburu aurkezpen hau, Durangoko Azokako Zu non, han DA! proiektuaren barruan dago. Proiektu honegaz, Landakogunean eskuragarri egon diran nobedadeak herrietako liburu-dendetan topau daitekez. Igaz Euskal Herriko 150 saltokik hartu eben parte.

DOKUMENTALA

Aire! Maurizian inspiratutako
dokumentala amaituteko crowdfunding
kanpaina abiatu dabe

Marmoka Films eta Bideografik Ekoizpenak ekoiztetxeek, Maurizia Aldeiturriagaren irudian oinarritutako *Aire!* filmaren ekoizleek, crowdfunding kanpaina bat abiatu dabe proiektuaren atzen zatia finantzietako.



Erredakzioa

Urte biko aurre-ekoizpenaren eta ia hilabeteko filmaketaren ondoren, *Aire!* dokumentalaren proiektuaren finantziazioa bultzatu, eta azken txanpan sartzeako, crowdfunding kanpaina ipini dabe martxan. Marmoka eta Bideografik ekoiztetxeek abenduaren 8an aurkeztu eben dokumentalaren aurrerapena Durangoko Azokan eta aurkezpen ekitaldia aprobe-txau eben finantziazioa bilatzen

dauan kanpaina abiarazoteko. Filma, 2023ko maiatzetako amaituta egotea espero dabe. "Prozesua luzea izan da baina esperientzia oso aberasgarria. Maurizia Aldeiturriagari buruzko oso pelikula desbardina izango da, inork espero ez dauana" azaldu deutso BEGITUFI Carlos Iglesias Bideografikekoak.

Artea, Igorre eta Zeberion grabauta
Euskal Herriko eta Kataluniako

13 gaztek parte hartzean dabe. Beste leku batzuen artean, Arte, Igorre eta Zeberion filmak da dokumentala. Gentzane Martinez de Osaba zuzendariaren bigarren dokumental luzea da. Argazki zuzendaria Eukeni Arriortua igorretarra eta aholkulari musikalak Carlos Sagi, Iraide Ansoarena eta Naroa Gaintza dira. Proiektuak Eusko Jaurlaritzaren, EITBren, Arteko eta Zeberio-riko Udalen eta Laboral Kutxaren laguntzea dauka.

DUNBA

Kotxeen museoa
prestatzen gabiz Artean

Arteko eskolan aurtan be proiektuetan murgilduta gagoz eta kotxeen museo bat prestatzen gabiz 3. zikloko ikasleak. Mila esker Eskurtze!

Arteko eskolako ikasleak

Horretarako, hainbat ezagutza desbardin eta datu ikasten ibili gara gure aurreretzietatik abiatuz. Aurrerexi honek baiezatzeko Bilboko Eskurtze Lanbide Heziketa zentrori egin genduan txangoa pasau dan eguaztenean, abenduak 7, eta bertan Luis Angel Atutxa igorretarra geunkan zain. Berak erakutsi euskuzan kotxeen

funtzionamentua, motorra, bateria eta beste hamaika datu. Hemen daukagun leiho hau aprobe-txau gura geunke Luis Angeleri eta Eskurtze ikasketxeari eskerrak emoteko izan genduan ondoetorri bero eta hurbilagaitik. Primeran pasau genduan, asko ikasi eta hurrengoan be pozarren bueltauko gara. Eskerrik asko Luis Angel eta Eskurtze ikastetxeko irakasle guztiei.



AGENDEA

ABENDUAK 15 ARTEA

18:00etatik 20:00etara, II. Berdintasunerako Planeko eztabaida taldea Kultur Etxean.

BEDIA

16:30etik 19:30era, abenduaren 22ra arte erakusketak: Gabonetako Txartel Lehiaketan parte hartu daben marrazkien erakusketea; jaiotzearen Playmobilen maketea eta birzikletako materialeakaz egindako Gabonetako zugatzen erakusketea. Liburutegian.

DIMA

18:00etan, Andraizeak antolatuta, turroi ikastaroa.

IGORRE

20:00etan, zinekluba. Lucia Alemanyren *La inocencia* pelikulea.

2023ko ikastaroetan izen-emotea hilaren 16ra arte Kultur Etxean, edo *ikastaroak@igorre.net* helbide elektronikora inskripzino orria beteta bialduta 18ra arte.

Kultur Etxeko bazkide kanpainea zabalik hilaren 22ra arte.

16-20 urte bitarteko gazteak garagarrilaren 17tik 23ra Europara bidaiari joango dira. Joan gura izan ezkeru bete hurrengo galdetegia helbide honetan: *https://forms.gle/LzBQGYy6aibDVbMx7*. Maratuk antolatuta.

LEMOA

Bonu kanpainea martxan. Urtailaren 15era arte erabili daitekez 10 euroan erositako bonuak 15 euroko baliogaz kanpainerai atxikitutako komertzioetan.

Hilaren 23ra arte, 10:30etik 12:30era eta 16:30etik 19:30era, Olentzero eta Mari Domingiri gutunak bialtzeko postontzia Kotxepin Kultur Etxean.

UBIDE

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, udagoien osoan zehar, mendi ibilbide autogidatua: Ubide-Eneabe-Bastelarra-Arralde. Ubide inguruko mendiak ezetuteko aukerea. Informazino gehiago 94 673 92 79 telefonoan edo *gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus* helbidean.

ZEBERIO

Itxi Olentzerori zure gutuna udaletxeko sarrerako postontzian. Gutunetan izena eta helbidea ipini behar da; Olentzeroren opariaz gainera Udalaren oparitxo be jasoko dabe zeberioztarrek.

17:00etan, Gabonetako apaingarrien tailerra Kultur Etxean.

19:00etan, dokumentala Kultur Etxean.

ABENDUAK 16 ARTEA

19:30ean, Jai Batzordea Kultur Etxean. IGORRE 16:00etatik 20:00etara, Hirugarren Azoka Solidarioa Agirre Lehendakaria kaleko autobus geraldaren atzeko arkupeetan.

18:00etan, Anita Maravillas eta Portal 71ren *Pintto Pintto* umeentzako antzerkia Lasarte Aretoan.

18:30ean, Elena Olave eta Karmele Gorroño, *Ahizpari gutuna* liburuaren aurkezpena Orrie liburu-dendan.

LEMOA

20:00etan, Esti Markezen *Hitzekin jolasean* diskoaren aurkezpen kontzertua Kotxepin Kultur Etxean.

ZEBERIO

18:30ean, ballet erakustaldia frontoian. 19:30ean, *Kepa Junkera* berpiztu filmaren proiektzinoa udaletxean.

ABENDUAK 17 AREATZA

10:30etik 14:00etara, nekazaritzako elikagaien produktuak eta artisautza azokea plazan. Egindako erosketa guztiek tokiko produktu loteen zozketan parte hartuko dabe.

20:00etan, The Half Nelsons taldearen kontzertua The Quiet Corner Tabernan.

BEDIA

10:00etan, familiako urtekerea El Pobaleko burdinolara Olentzero ikustera.

DIMA

17:00etan, Olentzero eta Mari Domingi Antzastin.

IGORRE

10:30ean, Ilbanduz indartu EH Bilduren saioa Kultur Etxean.

15:30etik 19:30era, saharar kultureagaz hartu-emonetan, musikea burrukearen zutabe moduan. Saharako Elkartea Arratian-ek antolatuta.

LEMOA

20:00etan, Elkartrukeko gazteek proiektuaren aurkezpena eta 20:30ean, dokumentalaren proiektzinoa Kotxepin Kultur Etxean; 21:30ean, kopaua eta 22:30ean, dj Set, animazinoa eta jantzea Karabie Gaztetxean.

UBIDE

16:30ean, urtekerea mendira. Olentzero eta Mari Domingiri gutunak eroatera; 18:00etan, Ane Gebara ipuin kontalaria eta ostein txokolate beroa eta gaztainak.

ZEANURI

19:00etan, Zeanuriko eta Igorreko Luis Iruarizaga abesbatzen kontzertua Andra Mari parrokian.



Berbalagunek II. Mikroipuin Lehiaketea ipini dau martxan

Urtailaren 7ra arte, Arratiako Berbalagun dinamikeak antolatutako II. Mikroipuin Lehiaketan parte hartzeako lanak bialdu daitekez *arratia-berba@gmail.com* helbidera. Gaia librea da eta gixhienez 50 berba, eta gehienez 100 izan behar ditu kontakizunak.

Aurten, gazte eta helduen kategoriak bereizi dira, kategoria bi sortuz: 16 urtera artekoa eta 16 urtetik gorakoa, hain zuzen be. Sari banaketa ekitaldia urtailearen erdikaldean egingo da eta epaimahaia, Berbalaguneko ordezkari batek eta Kubulu Euskaltegiko beste batek osotuko dabe.

Igaz 27 lan aurkeztu ziran eta 3 izan ziran sarituak: Maite Artaberen *Arantxaren proiektua*; Manex Bernalesen *Blaitu euskaraz!* eta Edurne Villanuevaren izenburu bako ipuina.

ABENDUAK 18 AREATZA

Parketxeak antolatuta, mendi ibilaldia: neguko urte amaierako Gorbeiaiko kurutzera igokerea. Izena emon 94 673 92 79 telefonoan edo *gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus* helbidean.

09:30ean, eleiz portalean. Turroi eguna. Kotxeetan joango dira. Goiz osoko urtekerea. Ubide-Siskina-Harrikurutze kobea-Ubide. Turroia eta saldea Guraso Elkartearen eta Lamino Kirol Klubaren kontu. Izena 16a baino lehen emon 627 021 082 edo 646 355 550 telefonoan.

ARTEA

11:00etan, Arratiako Xake Txapelketea Herriko Bentan. Xake Biziko kideen berbaldia: *Xakearen introdukzioa eta bere praktikaren onurak*. Parte hartu gura dauanak 688 634 548 telefonora deitu edo emon izena Herriko Bentan. Saria: Gabon otzara eder bat.

IGORRE

Inazio Zubizarretako Guraso Elkarateak antolatuta, ibilbide mitologikoa. 10:30ean hasita txandaka. Urtekerea Agarreko iturria baino haratxoago. Ibilbidea amaitukeran mokadutxo.

17:00etan, Zinuema. Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala zuzenean Lasarte Aretoan.

ZEBERIO

10:00etan, Bizkaiko Eskolarteko Banakako Eskupelota Txapelketea.

ABENDUAK 19 ZEBERIO

18:00etan, musika entzunaldia Kultur Etxean.

ABENDUAK 20 ZEBERIO

Familia ginkanea.

ABENDUAK 21 AREATZA

16:00etan, Lehen Hezkuntzakoentzat Parketxeak antolatuta, Gabonetako apaingarriak egiteko tailerra, natur elementuak erabiliz. Izena emon 94 673 92 79 telefonoan edo *gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus* helbidean.

BEDIA

17:30ean, Liburu-maleta ibiltaria Onditz Mendizabalen eskutik liburutegian.

19:00etan, Arratia Musika Eskolearen kontzertua eleizan.

ABENDUAK 22 ARTEA

18:30ean, Gabon Postalen Lehiaketearen erakusketea hasten da Kultur Etxean. Urtailaren 8ra arte.

BEDIA

Gabon jaia frontoian. Sarrerea janari

pakete bat edo euro bi Kooperera Senegal proiekturako. 17:30ean, ateaq zabaldu, erakusketak; 18:00etan, Gimnasia erritmikoko erakustaldia, Jauziri jantza taldearen erakustaldia, Gabon Postalen Lehiaketearen sari banaketea, Gabon Zuhaitzen Lehiaketearen sari banaketea; 19:00etan, pintxoak eta edariak.

IGORRE

18:00etan eta 19:30ean, Arratiako Musika Eskolako Gabonetako kontzertua Lasarte Aretoan.

ABENDUAK 23 DIMA

11:00etan, komiki tailerra liburutegian.

LEMOA

Rockrismas Fest Karabie Gaztetxean: 19:30ean, Rockalean taldeagaz poteoa Atxetatik; 22:00etan, Old Berri Band eta Zeinke taldeen kontzertuak gaztetxean.

ZEANURI

19:00etan, Etzanderak jantza taldearen emonaldia Ibarretako frontoian.

ZEBERIO

17:00etatik 21:00etara, Truke azokea.

17:00etan, gazteentzako urtekerea Scape room-era. Plazan. Izena 16an emon daiteke 17:00etatik 20:00etara Gaztelekuan. 12-17 urte. Plaza mugatuak.

ABENDUAK 24 ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Olentzero eta Mari Domingi. Ikusi egitarauak 8. eta 9. orrialdeetan.

ABENDUAK 26

IGORRE

20:15ean, Arratiako Merkatarien Elkarateak antolatuta, antzerki familiarra *Oh-Pera* eta ostein, 6 otzararen zozketea Lasarte Aretoan.

ZEANURI

11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara umeen eguna. GUP. Ibarretako frontoian; 18:30ean, Aitor Intxaurreagaren *Artzaintzaren naturbidea GR 282* dokumentala Arkotxan.

ZEBERIO

12:30ean, San Esteban jaiak Etxazon. Herri kirolak.

ABENDUAK 27 BEDIA

11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara, Gabonetako parkea frontoian.

LEMOA

10:00etan, Olentzeroren etxera urtekerea HH4 eta LH2 bitarteko umeentzat eskolatik urtenda.

19:00etan, Pintxo eta Korto Lehiaketea Karabie Gaztetxean.

ZEANURI

18:30ean, Juan Manuel Etxebarriaren *Matriarkalismoa eta euskal mundua* berbaldia Arkotxan.

ZEBERIO

18:30ean, erakusketea eta 19:00etan berbaldia *Zeberioztarrak Ameriketan, lau mendetan zehar*. Kultur Etxean.

ABENDUAK 28 ARANTZAZU

11:00etatik 13:30era, jokoak, puzgarriak... frontoian.

ARTEA

Ixabel Agirresaroberen ipuin kontaketa irudikatua.

IGORRE

17:00etan, Zinuema, zinea umeentzat, *The Snow Queen* Lasarte Aretoan.

begitu 396
2022ko abenduaren 15a

LEMOA

11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara, Gabonetako Haur Parkea kiroldegian.

ZEANURI

18:30ean, umeentzat zinea Arkotxan.

ZEBERIO

11:30ean, sukaldaritza saioa gazteentzat Gaztelekuan.

18:30ean, erakusketea *Zeberioztarrak Ameriketan, lau mendetan zehar* Kultur Etxean.

ABENDUAK 29 ARTEA

10:00etan, GUPera urtekerea. 2007 eta 2017 urte bitartekoek udaletxean emon daikie izena hilaren 20ra arte.

BEDIA

10:00etan, Bilboko GUPera urtekerea, izena 16ra arte emon daiteke liburutegian.

IGORRE

Gabonetako Umeen Parkea aterpean eta kiroldegian.

19:00etan, Gau Loratik hasita Gure Eskuren kantu poteoa.

LEMOA

11:00etatik, Got Talent Ludotekan.

19:00etan, Joseba Sarrionandia *Euskera, gure tribu ttipia* Karabien.

ZEANURI

18:30ean, Aritz Ganboa de Miguelen *Bideak* dokumentala Arkotxan.

ZEBERIO

11:30ean, Gabonetako parkea aterpean. 12:30ean, San Tomas Zaharra.

ABENDUAK 30 ARANTZAZU

21:00etan, Foterie taldeagaz rock kontzertua Herriko Tabernan.

AREATZA

19:30ean, Areatzak Bandaren Gabonetako kontzertua. Gaia: ipuin musikalak. Areatzak Bandak antolatuta.

IGORRE

20:00etan, antzerkia helduentzat *Lagun beltz asko* Lasarte Aretoan.

LEMOA

10:00etan, mendi urtekerea ludotekako umeek. Eskoletan.

ZEANURI

18:30ean, Jon Urutxurturen *Eleuterioren txabolea* berbaldia Arkotxan.

ZEBERIO

17:00etan, eskupelotea. Finalak eta lagunartekoak. Frontoian.

ABENDUAK 31 AREATZA

11:30ean, argazkia eta bideoa Urrekoatxan. Hamaiketako bertan. Bakotxak gura dauan orduan eta moduan igon ahal dau. 10:00etan, eleiz portalean igoten ez dakientzat. Lamino Kirol Klubak antolatuta.

IGORRE

11:30ean, San Silbestrea herritik zehar.

LEMOA

12:30ean, Eneko Zamalloa memoriala. XI. Gabonetako lasterketea Elizondon.

ZEANURI

San Silbestre urtekerea.

ZEBERIO

10:00etan, San Silbestre eguneko mendi urtekerea Tontorrandira. Plazan.

URTAILAK 2 BEDIA

17:00etan, Gabonetako zinea ludotekan.

LEMOA

19:00etan, *Zuri* antzezlanea Karabien.

KOMIKIA

Kailo
Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK HELDUENTZAKO ZERAMIKA IKASTAROA

Areatzan astelehenetik eguenera egun bat aukeran. 11:00etatik 12:30era. 120 euro hiruhilekoa (materiala barne, labakadea ez). Interesdunek deitu 615 731 182 telefonora (Saioa Larrea).

GARAJEA ALOKATZEN DOT
Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

TXAKURKUMEA OPARITZEN DOGUZ

Ama labradore errazakoa. Interesdunek jarri hartu-emonetan gugaz: 628 041 526 telefonora.

FURGONTEA SALTZEAN DOT
1998 urteko Peugeot Boxer furgonetea, egoera onean, saltzean dot. Interesdunek deitu telefono honetara: 688 638 906.

LANA GARBIKETA LANAK

Igorrerako eta inguruetarako etxeko garbiketak egiteko zerbitzua eskaintzen dot. Interesdunek deitu 651 708 595 telefonora.

GITARRA KLASAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rosk School. Gitarra klase personalizatuak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztetxean. Interesdunek deitu 664 303 528.

KLASE PARTIKULARRAK IGORREN

3-4 DBH eta Batxilergoko ikasleentzako matematika, fisika, kimika, teknologia... klaseak eskaintzen dira institutu ondoan. Informazio gehiagorako Whatsapp-a bidali zenbaki honetara: 608 381 984. John.

KLASEAK EMOTEN DODAZ

Piano klase partikularak emoten dodaz Areatzan (maila guztiak), umeentzat zein helduentzat. Interesdunek 629 461 077 telefonora deitu.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:

1
**Kristonak taldearen
Ahorbetehortz disko
bana.**

Rosa Ugartemendia (Artea)
Unai Totorika (Zeanuri)



2
**Igorreko Kultur Etxeak
emondako bina sarrera
Lagun beltz asko
antzezlanerako.**

Bihotz Gorospe (Dima)
Mireia Ugalde (Igorre)



Zerturen
argitalpenak
jasoko dozuz,
zozketetan
sartuko zara.
BEGITUk 20
urte eta
ehundaka
lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus



OPARI BONUAK

— 2022 —

OPARITU ONDOIZATEA

*Sartu gure webgunean, aukeratu
opari bonua, inprimatu eta listo!*

ZIRKUITU
TERMALAK

MASAJEAK

BIKOTE-KAPRITXOAK

ERRITUAL NATURALAK

EGONALDIAK

HOTELEAN

HIDROTERAPIA

ESTETIKA & KOSMETIKA

18€tik aurrera

hotelbalnearioareatza.com
hotelbalneariorduna.com

